RESULTADOS DEL CUESTIONARIO SOBRE ACTITUDES Y HÁBITOS

Bideo-jokoak, Internet edota sare sozialak erabiltzeko beraien bizitzako eginbeharrak (lagunekin egon, jan, lo egin, ikasi,...) alde batera uzten dituzten galdetu zaienean, ikasleen %6,3k (141 ikasle) "asko" erantzun du, %34,1ak (765 ikasle) "gutxi", %47,6k (1068 ikasle) "ezer" eta %10,3k (232 ikasle) teknologi hauek erabiltzen ez dituela erantzun du. Gainontzeko %1,7k (38 ikasle) ez du galdera hau erantzun.

Sexuari dagokionez, neskak gehiago dira mutilak baino galdera honi "ezer" edo erabiltzen ez dituztela erantzun dutenak.

Con respecto al ítem en el que se pregunta al alumnado si deja de lado quehaceres de su vida (estar con las amistades, comer, dormir, estudios,...) para utilizar videojuegos, Internet y/o redes sociales, el 6,3% (141 estudiantes) contesta "mucho", un 34,1% (765 estudiantes) "poco", 47,6% (1068 estudiantes) "nada" y el 10,3% (232 estudiantes) dice que no usa estas nuevas tecnologías. El restante 1,7% (38 estudiantes) no contesta esta pregunta.

En cuanto al sexo, hay más chicas que chicos, que afirman no usarlas o que no les quitan "nada" de tiempo para hacer otros de sus quehaceres.



Eginbeharrei denbora kentzea sexuaren arabera.
Alumnado que deja de lado los quehaceres de la vida en función del sexo.

Bere adinerako gomendatua egon ez arren edozein bideojokorekin jolasten duela %29,2k erantzun du, %25,4k berriz "ezetz" eta %19,5ak "batzuetan" egiten duela dio. %24,1ak bideojokoetan jolasten ez duela erantzun du. Gainontzeko %1,6k ez du galdera hau erantzun.


El 29,2% de las personas encuestadas dice **que juega a cualquier videojuego aunque no sea recomendado para su edad**, al contrario del 25,4% que dice que "no" y un 19,5% responde "a veces". El 24,1% del alumnado no juega a videojuegos y el restante 1,6% no contesta esta pregunta.

Sexuari dagokionez, jolasten ez dutenen kopurua nesketan askoz altuagoa da (%42,3).

Jolasten dutenen artean adin gomendatua ez izan arren jolasten dutenak mutilak dira askoz gehiago (%48,5). "Batzuetan" erantzuten duten kopurua ere mutiletan handiagoa da (mutilen %24a eta nesken %15,1a).

Teniendo en cuenta el sexo, el porcentaje de chicas que no juega a videojuegos es mucho mayor (42,3%).

Entre los que sí juegan hay más chicos (48,5%) que afirman jugar a juegos no recomendados para su edad. El porcentaje de los que contesta "Bastante" es mayor también en los chicos, con un 24% frente al 15,1% de las chicas.




Adinerako gomendatua ez izan arren edozein bideojokorekin jolastea. Alumnado que juega a videojuegos no recomendados para su edad.

Gauzak esaterako orduan whatsapp edo sare sozialen (facebook, ...) bidez eginda segurtasun gehiago sentitzen duten galdetu zaie eta erantzun duten ikasleen artean gehiengoak (%44,4) "ezetz" erantzun du eta %35,7k "batzuetan". "Baitez" erantzun dutenak %14,7 dira. Gainontzeko %5,1ak erabiltzen ez dituela erantzun du.

Jende berria ezagutzeko orduan %26,4k sare sozialak erabiltzen dituela esan du. Hauetatik, gehiengoak neskak dira (%27,3 neskak eta %25,8 mutilak).

Se les ha preguntado también si sienten más seguridad a la hora de decir cosas haciéndolo por whatsapp y/o a través de las redes sociales (Facebook,...). La mayoría de las personas que ha contestado dice "No" (44,4%) y un 35,7% "A veces". El porcentaje de los que dicen "Sí" es de un 14,7%. El restante 5,1% afirma no usar estas redes sociales.


El 26,4% usa las redes sociales para conocer a gente nueva; siendo más las chicas las que lo hacen (27,3% de las chicas y 25,8% de los chicos).



Jende berria ezagutzeko sare sozialak erabiltzen dituzten ikasleak sexuaren arabera. Alumnado que utiliza las redes sociales para conocer gente nueva en función del sexo.

Baietz erantzun dutenen sexu eta adina aztertzen baditugu, 9tik 11 urtera eta 16 urtetik gorako adin tarte guztietan mutilak direla neskak baino gehiago jende berria ezagutzeko sare sozialak erabiltzen dituztenak ikus dezakegu; eta 12tik 15era, berriz, neskak.

Si analizamos el sexo y la edad del alumnado que ha respondido "Sí" a esta pregunta, podemos destacar que en las franjas de edad de entre los 9 y 11 años y mayores de 16, el porcentaje de chicos que usa las redes sociales para conocer gente nueva es mayor. En cambio, en las chicas esta franja corresponde a la edad de entre 12 y 15 años.




Sexu eta adina kontuan izanik, jende berria ezagutzeko sare sozialak erabiltzen dituzten galderari baietz erantzun dioten pertsonak. Personas que utilizan las redes sociales para conocer gente nueva en función del sexo y la edad

Kalean baino sare sozialen bidez jendea ezagutzea errazago egiten zaio %18,6ri. Sexuaren arabera, hau erantzun dutenak, mutilak izan dira gehiago (%19,4), neskak baino (%18).

El 18,6% del alumnado encuestado ha respondido que **le resulta más fácil conocer gente a través de las redes sociales que en la calle**. En función del sexo, los que han respondido esto han sido más los chicos (19,4%) que las chicas (18%).

Sare sozialen bidez jende berria ezagutzen dutenean (informazio pertsonala ematerakoan, pertsona horrekin geratzen bazara ...) **pertsona arretatsuak diren** galdetu zaie. %29,3k baietz erantzun du eta %17,2k ezetz. %51k teknologiak erabiltzen ez dituela edo horretarako erabiltzen ez dituela erantzun du. Gainontzeko %2,4k ez du galdera hau erantzun.

En el siguiente ítem se les pregunta si son personas cautelosas (a la hora de dar información personal, de quedar con otras personas...) cuando conocen gente nueva a través de las redes sociales. El 29,3% ha respondido "Sí" y el 17,2% "No". El 51% ha respondido que no utiliza las tecnologías o que no las utiliza para eso. El resto, el 2,4%, no ha respondido a esta pregunta.




Sare sozialen bidez jende berria ezagutzen duzunean pertsona arretatsua zara
Eres una persona cautelosa al conocer gente nueva a través de las redes sociales.

DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleen JOKOARIBURUZKO GALDETEGIAREN EMAITZAK (1845 ikasle: 1012 mutil eta 826 neska)

RESULTADOS DE LA ENCUESTA SOBRE JUEGO pasada al alumnado de ESO, Bachiller y Formación Ocupacional (1845 personas: 1012 chicos y 826 chicas)

Apustuak egiten ditudanean ... galdera erantzun dutenen artean, %77,6k ez dituela egiten erantzun du. %11 apustuak egitera "beti kalera" (taberna, apustuak egiteko lekuak, lagunen artean, ...) ateratzen dela erantzun du, %8,7 "gehienetan kalera", %1,6k "gehienetan internet bidez" egiten dituela eta gainontzeko % 1,1k "beti internet bidez".

Entre las personas que han respondido a la pregunta **Cuando hago apuestas...** el 77,6% responde que no las hace. El 11% dice salir "siempre a la calle" (bares, establecimientos de apuestas, entre amistades, ...) a hacerlas, el 8,7% dice que la "mayoría de veces sale a la calle", el 1,6% "la mayoría de las veces por internet" y el 1,1% restante las hace "siempre por internet".




**Apustuak egiten ditudanean ...
Cuando hago apuestas...**

Apustuak egiten dituztenak hartzen baditugu, mutilak 337 dira (%83,8) eta neskak 65 (%16,2).


Entre las personas que hacen apuestas, hay 337 chicos (83,8%) y 65 chicas (16,2%)

Apustuak egiten dituzten pertsonak sexu eta adinaren arabera horrela banatzen dira: adin tarte guztietan bai neskak eta baita mutilak ere, apustuak "gehienetan" edo "beti" kalean egiten dituzte.

Las personas que hacen apuestas en función del sexo y la edad se repartirían de la siguiente manera: vemos que en todas las franjas de edad, tanto las chicas como los chicos dicen realizar las apuestas en la calle la "mayoría de las veces" o "siempre".




MUTILAK: Apustuak egiten ditudanean ... adinaren arabera.
CHICOS: Cuando hago apuestas ... en función de la edad.



NESKAK: Apustuak egiten ditudanean ... adinaren arabera.
CHICAS: Cuando hago apuestas ... en función de la edad.

Apustuak norekin egiten dituzten galdetu zaienean, erantzun dutenen artean %76,9k ez dituela egiten erantzun du. %3,4k apustuak "gehienetan bakarrik egiten ditut" erantzun du, %1,4k "beti bakarrik", %10,4k "gehienetan norbaitekin" eta gainontzeko %7,8k "beti norbaitekin".

Cuando se les pregunta con quién hacen las apuestas el 76,9% dice que no apuesta, el 3,4% las realiza "la mayoría de las veces a solas", 1,4% "siempre a solas", 10,4% "la mayoría de las veces con alguien" y el restante 7,8% "siempre con alguien".



Apustuak egiten ditudanean ...
Cuando hago apuestas...

Sexua kontuan izanik, apustuak egiten dituzten pertsonak hartuta, beti edo gehienetan **bakarrik** egiten dituzten mutilen portzentajea handiagoa da neskena baino. Eta neskek, aldiz, apustuak **norbaitekin** egiten dituzte gehienetan.


Apustuak egiteko dirurik ez dudanean ... galdera erantzun dutenen artean %89,1ak egiten ez dituela erantzun du. %1,5ak lagunei eskatzen die prestatzeko, %0,8k inguruko pertsonen baimenik eskatu gabe hartzen die dirua eta gainontzeko %8,6k ez duela apusturik egiten dirurik ez duenean erantzun du.

Apustuak egiten dituzten pertsonak hartzen baditugu, **dirurik ez dutenean zer egiten duten** galdetzen badiegu eta sexua kontutan harturik, ondorengo datuak ikus ditzakegu: neska gehiago dago dirurik ez duenean apusturik egiten ez duena (%87,5a); lagunei eskatu edota baimenik gabe ingurukoei hartzen diotenak, berriz, gehiago dira mutilak.

Teniendo en cuenta el sexo de las personas que apuestan, el porcentaje de chicos que apuesta siempre o la mayoría de las veces **a solas** es mayor que el de las chicas. Las chicas, realizan las apuestas **la mayoría de las veces con alguien**.

A la pregunta **Cuando no tengo dinero para apostar...** el 89,1% responde que no suele apostar, un 1,5% pide a sus amistades que les presten el dinero, el 0,8% se lo coge sin permiso a las personas de su alrededor y un 8,6% no hace apuestas si no tiene dinero.

Teniendo en cuenta solo a las personas que dicen apostar y el sexo, **cuando no tienen dinero para hacerlo**, hay que destacar que son más las chicas que dicen no apostar cuando no disponen de dinero (87,5%) y en el caso de pedir dinero a las amistades o cogerlo sin permiso, los chicos son la mayoría.



Apustuak egiteko dirurik ez dutenean ... sexuaren arabera
Cuando no tengo dinero para hacer apuestas ... en función del sexo.

ONDORIOAK/CONCLUSIONES

Droga kontsumo, jarrera eta ohiturei buruzko azterketa Análisis de consumo de drogas, actitudes y hábitos

2008, 2012 eta 2016ko ikerketen emaitzak konparatuz, droga aluzinagarrien kontsumoak izan ezik, 2016an beste droga guztien ohizko kontsumoak jaitsi egin direla ikus dezakegu. Aluzinagarrien kontsumoa igo arren, hau oso baxua izaten jarraitzen du (%0,5)

Comparando los resultados de las investigaciones del 2008, del 2012 y del 2016, podemos apreciar que el consumo de todas las drogas ha descendido, exceptuando el consumo habitual de drogas alucinógenas, siendo este aún muy bajo (0,5%) .

▪ **TABAKOA:** 2008 eta 2012an galdetutako pertsonen erdiak tabakoa probatu zuela zioen, 2016an aldiz %35,2k. Probatzeko "adin tipo"-a 13 urtekoa izan zen eta 15 urtera igo da 2016an. Ohizko kontsumoari dagokionez, beste 2 ikerketekin konparatuz 2016an hau jaitsi egin da (2008an %26, 2012n %25 eta 2016n %16). Datu hauek kontutan harturik, Adikzio Prebentzio Zerbitzuarentzat, orain arte egin den bezala, tabakoaren prebentzioa adin guztietako ikaslegoarekin lantzea ezinbestekoa da, Lehen Hezkuntzatik hasita. Beste kolektibo batzuekin ere tabakoa lantzea behar- beharrezkoa da guretzat (ikaslegoa, gurasoak, .biztanlegoarekin, ...).

▪ **TABACO:** Tanto en la encuesta del 2008 como en la del 2012 casi la mitad de los/as encuestados/as afirmaba haber probado el tabaco, en cambio en el 2016 esto se ha reducido al 35,2%. La "edad tipo" para probarlo eran los 13 años y esto ha subido a los 15 años en el 2016. En cuanto al consumo habitual, comparando con las otras dos investigaciones, en 2016 este consumo se ha reducido (26% en 2008, 25% en 2012 y 16% en 2016). Teniendo en cuenta estos datos, desde el Servicio de Prevención de Adicciones nos parece primordial trabajar con el alumnado la prevención del tabaco, en todas las edades pero comenzando ya desde la Educación Primaria, como venimos haciendo hasta ahora. También nos sigue pareciendo imprescindible trabajar con otros colectivos, como profesorado, padres y madres, población general, ...

▪ **ALKOHOLA:** Hiru ikerketak konparatuz, alkohola probatu duten pertsonen portzentajea %11,2n jaitsi da 2008tik 2016ra. Kontsumoari dagokionez, adin tarte guztietan azken 8 urteetan ohituraz kontsumitzen duten pertsonen portzentajea jaitsi egin da. Zerbitzutik, momenturarte egin den bezala, alkohola kontsumitzen hasteko adina atzeratzea eta kontsumitzaileetan arriskuen prebentzioa lantzen jarraitzea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu.

▪ **ALCOHOL:** Al comparar las tres investigaciones vemos que desde el 2008 al 2016 ha habido un descenso del 11,2% en el porcentaje de personas que ha probado el alcohol. En cuanto al consumo habitual, en los últimos 8 años y en todas las franjas de edad, ha habido un descenso en los porcentajes de consumo. Desde el Servicio nos parece muy importante seguir trabajando tanto para retrasar la edad de inicio del consumo de alcohol como la prevención de riesgos en las personas ya consumidoras.

- **KANNABISA:** Azken 8 urteetan kannabisa probatu dutenen portzentajea %12an jaitsi da. Gutxiago dira hatxisa probatu dutenak marihuana probatu dutenak baino. 2008n probatzeko "adin tipo-a" 14 urte ziren, 2012tik aurrera aldiz 15 urte dira. Ohizko kontsumoa azken 8 urte hauetan behera egin du; hatxisaren kasuan %10a jaitsi da eta marihuanarenean %7,9a; hatxisaren jaitsiera marihuanarena baino haundiagoa delarik. Dena den, 2016 ko ikerketan kannabisa probatu dutenen %29tik %19,6k ohituraz kontsumitzen jarraitzea deigarria da. Hau dela eta, orain arte bezala, ikastetxeetan, kannabis kontsumoaren eta honek izan litzakeen arriskuen prebentzioan lanean jarraituko dugu.
- **CANNABIS:** El porcentaje de personas que ha probado esta sustancia ha descendido en un 12% en los últimos 8 años. Son menos las personas que han probado el hachís que la marihuana. En el 2008 la "edad tipo" para probarlo eran los 14 años, siendo este los 15 a partir del 2012. El consumo habitual en estos últimos 8 años ha descendido; un 10% en el caso del hachís y un 7,9% en la marihuana, siendo el descenso del hachís mayor que el de la marihuana. Aún así nos parece llamativo que del 29% de las personas que afirman haber probado el cannabis en el 2016 el 19,6% siga consumiéndolo de forma habitual. Por lo que, desde el Servicio, seguiremos haciendo hincapié en el trabajo de la prevención del consumo del cannabis y sus posibles riesgos, en los centros escolares.
- **GAINONTZEKO DROGAK:** Gainontzeko droga hauen kontsumoak orain arte aipatutakoenak baino askoz txikiagoak dira. Orokorrean, droga hauen kontsumoak 18-19 urtetik aurrera hasten dira, kontsumo hauek gehienbat noizbehinkakoak izanik. Ohizko kontsumoari dagokionez, azken 8 urte hauetan droga ilegal hauen kontsumoak erdira edo sustantzi batzuen kasuan erdia baino gutxiagora jaitsi dira.
- **RESTO DE LAS DROGAS:** El resto de las drogas se consume en mucha menor medida que las comentadas hasta ahora. En general, el comienzo del consumo de estas drogas se da a partir de los 18-19 años, siendo estos consumos sobre todo ocasionales. En cuanto al consumo habitual, en los últimos 8 años el consumo de estas drogas ilegales se ha reducido a la mitad o a más de la mitad en el caso de algunas de estas sustancias.

ONDORIOAK/CONCLUSIONES

Teknologi berriak eta jokoaren inguruko ohiturak Costumbres del uso de las nuevas tecnologías y el juego

Durangoko Amankomunazgoko LHko Hirugarren Zikloko, DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikaslegoari (2244 ikasle: 1199 mutil eta 1030 neska) pasatutako teknologi berrien eta jokoari buruzko inkestaren emaitzetatik ondoko ideiak ondorioztatu ditugu:

1. Gehien eta maiztasun handiagoarekin erabiltzen dituzten teknologiak hauek dira: chat-a, sare sozialak, bideo- jokoak eta on line jokoak.

2. Sexuaren arabera, emakumeek chat-a eta sare sozialak gehiago erabiltzen dituzte eta gizonezkoek beste guztiak gehiago, baina batez ere bideo eta on line jokoak.

3. Galdetutako ikasleen %47,6k **ez dute beraien bizitzako eginbeharrak (lagunekin egon, jan, lo egin, ikasi,...)** "ezer" alde batera uzten **bideo-jokoak, Internet edota sare sozialak erabiltzeko**, %34,1ak "gutxi" eta %6,3k "asko". Gainontzekoek ez dituzte teknologi berriak erabiltzen edo ez diote galdera honi erantzun.

Neskak gehiago dira mutilak baino galdera honi "ezer" edo erabiltzen ez dituztela erantzun dutenak.

4. %48,7k **bere adinerako gomendatua egon ez arren edozein bideojokorekin jolasten duela** dio (hauetatik, %19,5ak "batzuetan" erantzun du) eta %25,4k galdera honi "ezetz" erantzun dio.

Sexuari dagokionez, bideojokoetara jolasten ez dutenen kopurua nesketan askoz altuagoa da (%42,3).

Jolasten dutenen artean, adin gomendatua ez izan arren jolasten dutenak mutilak dira askoz gehiago.

Las conclusiones que derivan de los resultados del cuestionario sobre nuevas tecnologías y juego que se ha pasado al alumnado de Tercer Ciclo de Primaria, ESO, Bachiller y Ciclos Formativos de la Mancomunidad de Durango (2244 alumnos y alumnas: 1199 chicos y 1030 chicas) son las siguientes:

1. Las tecnologías que más se utilizan y con más frecuencia son: el chat, las redes sociales, los videojuegos y los juegos on line.

2. En función del sexo, las mujeres utilizan más el chat y las redes sociales y los hombres todos los demás, pero sobre todo los videojuegos y los juegos on line.

3. El 47,6% de las personas encuestadas dice no dejar **"nada" de lado o quehaceres de su vida (estar con las amistades, comer, dormir, estudios,...)** para utilizar **videojuegos, Internet y/o redes sociales**, el 34,1% "poco" y el 6,3% "mucho". El resto dice no usar las nuevas tecnologías o no contesta esta pregunta.

Son más chicas que chicos, las que afirman no usarlas o que no les quitan **"nada"** de tiempo para hacer otros de sus quehaceres.

4. El 48,7% de las personas encuestadas dice **que juega a cualquier videojuego aunque no sea recomendado para su edad**, (de este porcentaje el 19,5% contesta que "a veces") y el 25,4% contesta que "no".

Teniendo en cuenta el sexo, el porcentaje de chicas que no juega a videojuegos es mucho mayor (42,3%).

Entre los que sí juegan, hay más chicos que afirman jugar a juegos no recomendados para su edad.

5. Ikasleen ia erdiak (%44) ez du **gauzak esaterako orduan whatsapp edo sare sozialen (facebook, ...) bidez segurtasun gehiago sentitzen.**

6. **%26,4k sare sozialak erabiltzen ditu jende berria ezagutzeko orduan.** Hauetatik, gehiengoak neskak dira.

7. 9tik 11 urtera eta 16 urtetik gorako adin tarte guztietan mutilak dira neskak baino gehiago jende berria ezagutzeko sare sozialak erabiltzen dituztenak eta 12tik 15era, berriz, neskak.

8. %18,6ri **kalean baino, sare sozialen bidez jendea ezagutzea errazago egiten zaio;** mutilei neskei baino gehiago (%19,4 eta %18, hurrenez hurren).

Sare sozialen bidez jende berria ezagutzen dutenean (informazio pertsonala ematerakoan, pertsona horrekin geratzen bazara ...) **pertsona arretatsuak diren galdetu zaie eta** %29,3k baietz dio eta %17,2k ezetz. Gainontzekoek, ez dituzte teknologiak erabiltzen, ez dituzte horretarako erabiltzen edo ez dute galdera hau erantzun.

5. Casi la mitad de la población estudiantil encuestada (44%) afirma no sentirse más segura **a la hora de decir cosas haciéndolo por whatsapp y/o a través de las redes sociales (Facebook,....).**

6. **El 26,4% usa las redes sociales para conocer a gente nueva.** De este porcentaje la mayoría son chicas.

7. En las franjas de edad de entre los 9 y 11 años y en el de mayores de 16, el porcentaje de chicos que usa las redes sociales para conocer gente nueva es mayor. Y en la franja de entre 12 y 15 son más las chicas.

8. Al 18,6% **le resulta más fácil conocer gente a través de las redes sociales que en la calle;** más a los chicos (19,4%) que a las chicas (18%).

Cuando se les pregunta si son personas cautelosas (a la hora de dar información personal, de quedar con otras personas...) cuando conocen gente nueva a través de las redes sociales el 29,3% responde que "Sí" y el 17,2% que "No". El resto no utiliza las tecnologías o no las utiliza para eso o no ha respondido a esta pregunta.

ONDORIOAK/CONCLUSIONES

DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako ikasleen jokoari buruzko galdetegia

Encuesta sobre el juego pasada al alumnado de ESO, Bachiller y Formación Ocupacional

1. Galdetutako %77,6k ez du **apusturik egiten** eta apustuak egiten dituztenen artean, mutilak 337 dira (%83,8) eta neskak 65 (%16,2).
2. %19,7a apustuak egitera "beti" edo "gehienetan" **kalera** (taberna, apustuak egiteko lekuak, lagunen artean, ...) ateratzen da eta %2,7ak "gehienetan" edo "beti" **internet bidez** egiten ditu.
3. Adin tarte guztietan bai neskak eta baita mutilak ere, apustuak "gehienetan" edo "beti" kalean egiten dituzte.
4. %4,8k apustuak "gehienetan" edo "beti" **bakarrik** egiten ditu (mutilen portzentajea haundiagoa da) eta %18,2k "beti" **norbaitekin**. Gainontzekoek ez dute apusturik egiten.
5. **Apustuak egiteko dirurik ez dutenean** %8,6k ez du apusturik egiten (neskak gehiago dira hemen), %1,5ak lagunei eskatzen die prestatzeko eta %0,8k inguruko pertsonen baimenik eskatu gabe hartzen die dirua (azken bi kasu hauetan, gehienak mutilak dira). Besteek ez dute inoiz apusturik egiten.
1. El 77,6% de las personas encuestadas no **realiza apuestas** y de las personas que sí apuestan, hay 337 chicos (83,8%) y 65 chicas (16,2%).
2. El 19,7% dice salir "siempre" o "la mayoría de las veces" **a la calle** (bares, establecimientos de apuestas, entre amistades,...) para hacer las apuestas y un 2,7 las hace "la mayoría de las veces" o "siempre" **por internet**.
3. En todas las franjas de edad, tanto las chicas como los chicos dicen realizar las apuestas en la calle la "mayoría de las veces" o "siempre".
4. El 4,8% realiza las apuestas "la mayoría de las veces" o "siempre" **a solas** (el porcentaje de chicos es mayor) y el 18,2% **con alguien**. El resto de las personas encuestadas no realiza apuestas.
5. **Cuando no tienen dinero para apostar** el 8,6% no hace apuestas (el porcentaje de chicas es mayor), un 1,5% pide a sus amistades que le presten el dinero y un 0,8% se lo coge sin permiso a las personas de su alrededor (en estos dos últimos casos, los chicos son mayoría). El resto no hace apuestas.

B) Plana egiteko eta garatzeko orduan udal-arlo eta herritarren partaidetzarako mekanismo desberdinen ekarpenak

Aportaciones de las diferentes áreas municipales y mecanismos de participación ciudadana en la elaboración y desarrollo del Plan

Adikzioen gaiaren inguruan informazioa eta iritziak jasotzeko Amankomunazgoko agente desberdinei inkesta bat pasatu zaie. Hauek 7 maila desberdinetan banatu ditugu:

Se ha pasado un cuestionario a personas de diversos ámbitos de la Mancomunidad para intentar recabar información y opiniones sobre el tema de las Adicciones. Los hemos dividido en 7 niveles de actividad:

- **INGURU POLITIKOA - MEDIO POLÍTICO**
- **OSASUN INGURUA - MEDIO SANITARIO**
- **POLIZIA INGURUA - MEDIO POLICIAL**
- **ESKOLA INGURUA - MEDIO ESCOLAR**
- **FAMILIA INGURUA - MEDIO FAMILIAR**
- **KOMUNITATE INGURUA - MEDIO COMUNITARIO**
- **GIZARTE ONGIZATE SAILA - AREA BIENESTAR SOCIAL**

Pasatu dugun inkesta hurrengo hau izan da.

ELKARRIZKETAK “2019-2023 ADIKZIOEN PLAN LOKALA”

1. Aurten Adikzioen plan lokal berria burutu behar dugu. Zer da zuretzat adikzio bat?
2. Zure herrian, zein adikzio dagoela uste duzu? Zehaztu, zure ustez, adikzio hauek dituzten pertsonen gehiengoak duen adina, sexua, lan egoera edota egoera ekonomikoa eta jatorria.

menpekotasuna	adina	sexua	lan egoera edota egoera ekonomikoa	pertsonaren jatorria

3. Zure ustez, zeintzuk dira adikzio hauek gertatzearen arrazoiak?
4. Zein baliabide ditu herriak, pertsonen batek honelako adikzio batekin arazo bat duenean?
5. Non eta zelan eragin behar du Prebentzio Zerbitzuak herriaren /Amankomunazgoko egoera hobetzeko?

IRADOKIZUNEN BAT BADUZU...

Jasotako informazioak, beraien ikuspuntuak, esperientziak, lehentasunak, aholkatzen zuten koordinazio modeloa,... lagundu digute Durangoko Merinaldeko Amankomunazgoko beharretara egokitutako plan bat burutzen.

El cuestionario es el que viene a continuación.

ENTREVISTAS “PLAN LOCAL DE ADICCIONES 2019-2023”

1. Este año vamos a elaborar un nuevo plan local de adicciones. ¿Qué es para tí una adicción?
2. ¿Qué adicciones crees que existen en tu municipio? Especifica, según tu opinión, la franja de edad, el sexo, la situación laboral o nivel económico y la procedencia de las personas que mayoritariamente padecen estas adicciones.

adicción	edad	sexo	situación laboral o económica	Procedencia de la persona

3. Desde tu punto de vista, ¿cuáles son las causas de que se produzcan estas adicciones?
4. ¿De qué recursos dispone la población en caso de que alguna persona tenga algún problema con estas adicciones?
5. ¿Dónde y cómo crees que debe actuar el Servicio de Prevención para mejorar el estado actual del municipio/Mancomunidad?

SI TIENES ALGUNA SUGERENCIA...

La información obtenida, sus puntos de vista, sus experiencias, sus prioridades, el modelo de coordinación que aconsejaban, ... nos ha ayudado en la elaboración de un plan acorde a las necesidades de la Mancomunidad de la Merindad de Durango.

INGURU POLITIKOA

MEDIO POLÍTICO

UDALERRIETAKO ALKATEAK ALCALDES/ALCALDESAS DE LOS MUNICIPIOS

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa osatzen duten udaletxeetako alkateei elkarrizketa egin zaie.

Adikzio bat zer den definitzeko orduan pertsona bat menderatzen duen edozer dela diote (substantzia bat, joera bat, pertsona bat,...), mendekotasun bat sortzen duena eta utzi nahi izan arren ezin dozuna, ezin da kontrolatu. Horren eraginez, pertsonak arazo fisiko eta psikologikoak eduki ahal dituzte eta izaera era aldatzen dute.

Beraien udaletan dauden adikzioei buruz galdetzen zaienean hauek direla uste dute:

- ⇒ Ludopatiak/jokoa: Arazoa, 30 urtetik aurrera hasten dala diote gehienek, baina batenbatek gazteagoetan ere ematen dela dio, gehiengoak gizonezkoa bada ere emakumeetan ere ikusten dute. Egoera sozioekonomikoei buruz ez badute askorik aipatzen, egoera ekonomiko txarretan daudenetan ikusten dute.
- ⇒ Tabakoa: 15 urtetik gora; edozein sexu, jatorri eta egoera ekonomikotan ikusten dute.
- ⇒ Alkohola: Nagusiagoetan ematen dela ikusten badute ere, gazteagoetan ere gerta daitekela diote; gizonetan emakumeetan baino gehiago, lan maila, maila ekonomikoa eta jatorria edozein dela ere; langabetuetan pixka bat gehiago ikusten badute ere.
- ⇒ Beste droga batzuk: Arazoa gazteetan dagoela ikusten dute, nahiz eta batzuk 50 urtekoek ere badutela ikusten duten. Batez ere gizonezkoetan eta egoera sozioekonomikoari buruz ez dute ezer adierazten
- ⇒ Mugikorra: gaztetxoetan ikusten dute (12 urtetik gora). Besterik ez dute zehazten.

Se ha realizado la entrevista a alcaldes y alcaldesas de los Ayuntamientos que componen la Mancomunidad de la Merindad de Durango.

Cuando se les pide que definan una adicción, dicen que es cualquier cosa que domina a una persona (una sustancia, un comportamiento, una persona,...) que produce una dependencia, y aunque se quiera dejar no se puede controlar. En consecuencia, las personas pueden sufrir problemas físicos y mentales, y puede cambiar la personalidad.

En cuanto a las adicciones que creen que existen en su municipio comentan lo siguiente:

- ⇒ Ludopatias/juego: La mayoría dice que el problema comienza a partir de los 30 años, pero alguno/a comenta que también se produce en personas más jóvenes. A pesar de opinar que la mayoría son hombres, también dicen que se da en mujeres. Aunque no indican mucho sobre la situación socio-económica, opinan que se da en personas con problemas económicos.
- ⇒ Tabaco: A partir de 15 años. Opinan que se da en cualquier situación socio-económica y que el sexo no influye.
- ⇒ Alcohol: Aunque opinan que se da en personas más adultas; también lo ven en jóvenes. Se produce más en hombres que en mujeres, sin importar la situación laboral o económica y la procedencia de la persona; aunque opinan que se da más en las personas en paro.
- ⇒ Otras drogas: Opinan que el problema está en la juventud; pero hay quien piensa que también se da en personas de hasta 50 años. Sobre todo en hombres, y no indican nada sobre la situación socio-económica
- ⇒ El móvil: Ven que es un problema que se produce en la juventud (a partir de 12 años). No especifican nada más.

Menpekotasun hauen arrazoiak pertsona bakoitzean desberdinak izan daitezkeela diote, baina hauek aipatzen dituzte:

- Autoestima baxua
- Depresioa
- Krisialdi pertsonala. Estresa edo arazoei aurre egiteko
- Ebaditzeko nahia edo beharra
- Sozializatzeko zailtasunak
- Taldearen presioa
- Gizartearen joera eta ohiturak
- Banalizazioa, informazio gutxi
- Nerabazaroko kontrakultura
- Familia desestruturatuak
- Gurasoen denbora falta

Los motivos de estas adicciones dicen que son diferentes dependiendo de la persona; pero comentan los siguientes:

- La baja autoestima
- La depresión
- Crisis personales. Para enfrentarse al estrés o problemas personales
- Necesidad o querer evadirse
- Dificultades para socializar
- La presión del grupo
- Costumbres y hábitos de la sociedad
- Vanalización, poca información
- Contracultura de la adolescencia
- Familias destrutturadas
- Poco tiempo de padres y madres

Amankomunazgoan dauden eta adikzioen bat duten pertsonak erabil ditzaketen baliabideei buruzko galderan, ondorengo hauek daudela uste dute:

- Adikzioen Prebentzio Zerbitzua
- Osasun Zerbitzuak, bai asistentzia bai psiquiatria aldetik
- Gizarte Zerbitzuak.
- Kapitalera bideratzea (Herrikoek jakitearen lotsa)
- Familia ingurua

En cuanto a los recursos a los que puedan acudir personas con algún tipo de adicción en la Mancomunidad destacan:

- El Servicio de Prevención de Adicciones
- Servicios Sanitarios, a nivel tanto asistencial como psiquiátrico
- Servicios Sociales
- Derivar a la capital (Vergüenza de que lo sepa la gente del pueblo)
- El entorno familiar

Prebentzio Zerbitzuak non eta zelan eragin behar duen galdetzerakoan jaso ditugun erantzunak hauek izan dira:

- Ikastetxeetan, gazte guneeetan,... Nerabe eta gazteekin lanean batez ere.
- Kalean: Jaietan furgonetak (Ai laket!) alkohola landuz, autobusak jarritz, kontsumo arduratsua bultzatuz.
- Familiarekin lan eginez.
- Estatistikak ateratzen.

Al preguntarles dónde y cómo debe actuar el Servicio de Prevención, sus respuestas han sido las siguientes:

- En los centros escolares, los gazte gunez,... Trabajando con adolescentes y jóvenes sobre todo.
- En la calle: En fiestas colocando furgonetas (Ai laket!) trabajando el alcohol, poniendo autobuses, promocionando el consumo responsable.
- Trabajando con las familias.
- Sacando estadísticas.

OSASUN INGURUA

MEDIO SANITARIO

Osasun arloan lan egiten duten pertsonak adikzioen inguruan zeregin bikoitza dute: pazienteak alderdi guztietan aurkezten dituen arazoen asistentzia edo zuzeneko arreta eta osasunerako heziketaren bidez prebentzioa.

Los y las trabajadoras de la salud en asistencia tienen un doble papel a jugar en relación a las adicciones: el asistencial o de atención directa a la problemática presentada por el paciente en todas sus facetas y el de prevención a través de la educación para la salud.

OSASUN MENTALEKO ZENTRUA ETA ABADIÑOKO JUAP-A CENTRO DE SALUD MENTAL YJUAP DE ABADIÑO

Landakoko Osasun Mentaleko Zentrua Durangoko Amankomunazgoaz gain, Zornotza, Ondarroa eta Markina aldeko pertsonen ere arduratzen da. Beraz lortu den ikuspegia ez da Durangaldekoa bakarrik.

Pertsona helduen psikiatria orokorraz, alkoholismoa eta toxikomaniaz arduratzen dira, baina baita Osasun Hezkuntzaz ere (elikadura, dieta, bizitza erritmoa...). Aurretiko baldintza bezala sendagile batek deribatzea eskatzen dute. Oti 18 urte bitarteko pertsonen arreta Galdakaoko psikiatriako haur eta gazteen unitatean burutzen da.

Osasun Zentroekin erlazioa mantentzen dugu, hain zuzen, Emakumeak eta Psikofarmakoak, Tabakoa Uzteko Programak koordinatzeko, ...

Osasun Mentaleko Zentrotik eta JUAPak, adikzioa arrisku portaera edo substantzia jakinen kontsumoan oinarritutako egunerokotasuneko ohitura bat bezala ulertzen dute, mendekotasun fisiko zein psikologikoa sortzen duena eta osasunarengan eragin negatiboa duena. Tolerantzia ere sortzen delarik.

Beraien udalerrietan dauden adikzioetaz hitz egiterakoan, hauek existitzen direla esaten dute:

- Tabakoa: Beraien esanetan, nerabezaroan ematen da baina beranduago ere gerta daitekela diote eta gehien bat emakumeetan ematen dela.
- Alkohola: Nagusietan ematen da gehien bat. Emakumeak gehienetan etxeko andreak izaten dira eta gizonezkoak langabezia daudenak edo pentsiodunak.
- Kalamua: Nerabezaroan eta nagusiagoak ere. Sexua eta egoera sozioekonomikoa zehaztu gabe.

El Centro de Salud Mental de Landako cubre la población de la Mancomunidad de Durango, Amorebieta y se extiende hasta la zona de Ondarroa y Markina. Por tanto la visión obtenida no es solo del Duranguesado.

La atención gira en torno a la psiquiatría general de personas adultas, alcoholismo y toxicomanías, aunque también realizan labores de Educación para la Salud (alimentación, ritmo de vida,...). Como requisito previo exigen la derivación de un médico o una médica. La atención de personas entre 0 y 18 años se lleva a cabo en la unidad de psiquiatría infanto-juvenil de Galdakao.

Con los Centros de Salud mantenemos relación para la coordinación de ciertos proyectos, como puede ser el de Mujeres y Psicofármacos, el de Deshabitación al Tabaco,...

Desde el Centro de Salud Mental y el JUAP, definen la adicción como una conducta de riesgo o el hábito diario del consumo de una sustancia concreta que produce dependencia física o psicológica y que tiene un efecto negativo en la salud. También produce tolerancia.

Con respecto a las adicciones que existen en su municipio comentan las siguientes:

- Tabaco: Indican que se produce en la adolescencia, pero también en edades más adultas y que se da sobre todo en mujeres.
- Alcohol: Se da sobre todo en personas adultas. En el caso de las mujeres suelen ser sobre todo amas de casa y en el de los hombres pensionistas o parados.
- Cannabis: En la adolescencia y también mayores. No especifican el sexo ni la situación socio-económica.

- Beste drogak (kokaina, heroina, extasia,...): 25 urtetik gorakoetan eta gizonezkoetan ematen dela diote. Kokainaren kasuan langileak dira baina heroinaren adikzioa langabetu eta ezgaitasunak dituztenetan ematen dela diote.
- Jokua: Beraien esanetan, nerabeak direnean mutilak eta ikasleak (Kirol apustuak) dira. Helduen kasuan gizonezkoak eta langileak (on line jokuak)
- Interneta/Sare sozialak: Nerabeak izaten dira beraien ustez.
- Kafea: Ikasleak izaten dira.

Adikzioen atzean arrazoi asko daudela diote. Hauen artean ondorengoak zerrendatzen dituzte:

- Nortasuneko elementu batzuk
- Ezaugarri psikosozialak
- Sozialki harremantzeko zailtasunak
- Talde presioa
- Erlazioetan gatazkak
- Ezegonkortasun emozionala
- Ohiturak, modak
- Familia disfuntzionalak
- Osasun mentala

Adikzioen bat duten pertsonen erabil ditzaketen baliabideak hauek direla diote:

- Tratamendu ambulatoriorako Osasun Mentaleko zentruak
- Ospitaleko desintoxikazio unitateak.
- Eguneko ospitalak
- Komunitate terapeutikoak
- Espezializatutako eguneko ospitalak
- Prebentzio eta sostengurako programak (Hirusta, Gizakia, Etorkintza)
- Errekurtsoetarako informazio Zerbitzuak (Gizarte Langileak)
- Eskoletako Prebentzio programak (EISE)

- Otras drogas (cocaína, heroína, extasis,...): Dicen que se da a partir de 25 años y en hombres. En el caso de la cocaína son hombres trabajadores, pero en el de la heroína son parados o incapacitados.
- Juego: Según sus datos, cuando son adolescentes suelen ser chicos y estudiantes (Kirol apustuak). En el caso de personas adultas son hombres trabajadores (juego online).
- Internet/redes sociales: Según sus datos, se da en adolescentes.
- Café: En el alumnado.

Opinan que estas adicciones no son la consecuencia de una sola razón, si no de un cúmulo de causas, entre las que destacan:

- Algunos elementos de la personalidad
- Factores psicosociales
- Problemas para socializar
- La presión de grupo
- Conflictos en las relaciones
- Inestabilidad emocional
- Costumbres, modas
- Familias disfuncionales
- Salud mental

En cuanto a los recursos a los que puedan acudir las personas dependientes apuntan:

- Centros de Salud Mental de tratamiento ambulatorio
- Unidades de desintoxicación de los hospitales
- Hospitales de día
- Comunidades terapéuticas
- Hospitales de día especializados
- Programas de prevención y apoyo (Hirusta, Gizakia, etorkintza)
- Servicios de información de recursos (Servicios sociales)
- Programas de Prevención en las escuelas (EISE)

Prebentzio Zerbitzuak non eta zelan eragin behar duen galdetzerakoan jaso ditugun erantzunak hauek izan dira:

- Gauza asko egiten ari da, baina ez da nahikoa. Arlo guztietan kontzientziatzea: hezitzailean, osasun arloan,....
- Eskoletan prebentzio programa errealak ezartzea.
- Jai eremuetan prebentzioa begi bistakoa izatea.
- Sostengurako taldeen hedaketa gauzatzea.
- Langile multidisziplinarrak egotea.

Al preguntarles dónde y cómo debe actuar el Servicio de Prevención, sus respuestas han sido las siguientes:

- Se están haciendo muchas cosas, pero no terminan de calar. Es necesaria la concienciación en todos los ámbitos: educadores/as, a nivel sanitario, ...
- Programas de prevención reales en los centros escolares.
- Que la prevención se visibilice en las fiestas.
- Ampliar los grupos de apoyo.
- Que haya trabajadores y trabajadoras multidisciplinares.

POLIZIA INGURUA

MEDIO POLICIAL

ERTZAINZA

ERTZAINZA

Adikzio bat faktore psikologiko edo fisiologikoengatik bultzatutako gehiegizko eta beharrezko kontsumo kontrolagaitza dela diote.

Ertzaintzak durangaldean sumatzen dituen menpekotasunak hauek dira:

- Tabakoa eta beste droga batzuk: Kontsumoa 14-15 urtetik aurrera hasten dela diote, sexua edozein delarik, eta bereziki, ikasleen artean ematen den kontsumo bat dela.
- Alkohola: Kontsumoa 16 urtetik aurrera hasten dela uste dute eta kontsumoan gehiengoak gizonezko ikasleak direla diote.
- Apustuak: Jokaera arazotsua 18 eta 30 urte bitartean gertatzen da, batez ere ikasle eta ekonomiaz maila erdi-baxua duten langileen artean bereziki.

Kontsumo hauek bai bertako pertsonetan bai etorkinetan gertatzen direla azpimarratzen dute, baina batez ere lehenengoetan.

Dependentzia hauen arrazoiak hauek dira beraien ustez: gizarte eta talde presioa

Adikzioen bat duten pertsonen erabil ditzaketen baliabideak honako hauek direla diote:

- Osasun Asistentzia eta Asistentzia Soziala (Diputazioa, Eusko Jurlaritz, Udaletxeak, Amankomunazgoa, ...).
- Erakunde Publikoekin elkarlanean dauden erakunde eta elkarte desberdinak.

Adikzioen Prebentzio Zerbitzuak bai ikastetxeetan, zein gazte lokaletan esku hartu behar duela uste dute. Lehenengoaren kasuan ikasle, guraso eta irakasleei zuzendutako hitzaldi, ikastaro eta elkarriketen bidez eta bigarren kasuan kontsumoekiko kontrola erraztuko dituzten arau eta udal-ordenantzak ezartzean.

Definen la adicción como cualquier conducta de consumo "desmesurada", necesaria e incontrolable, motivada por factores psicológicos o fisiológicos.

Las adicciones que existen en la comarca del duranguesado según la ertzaintza son sobre todo:

- Tabaco y otras drogas: Consideran que el consumo se inicia a partir de los 14-15 años, indiferentemente de cuál sea el sexo y que es la población estudiantil la que predomina en el consumo de dichas drogas.
- Alcohol: Opinan que el consumo comienza a partir de los 16 años, siendo los hombres estudiantes los que predominan en el consumo de la misma.
- Apuestas: El comportamiento problemático se da entre los 18 y los 30 años, especialmente entre los estudiantes y los trabajadores de nivel económico medio.

Señalan que estos consumos se dan tanto en personas autóctonas como en inmigrantes, pero más predominantemente en las primeras.

Opinan que los motivos de adicciones son: la presión social y de grupo.

En cuanto a los recursos a los que puedan acudir las personas con algún tipo de adicción, apuntan los siguientes:

- Asistencia Sanitaria y Social (Diputación, Gobierno Vasco, Ayuntamiento, Mancomunidad)
- Organizaciones y asociaciones en colaboración con las Administraciones Públicas

Opinan que el Servicio de Prevención de Adicciones debe de intervenir tanto en los centros escolares, a través de charlas, cursos y entrevistas dirigidas al alumnado, padres y madres y profesorado, como en las lonjas juveniles, implantando normativas u ordenanzas municipales relacionadas con el consumo que faciliten un control al ayuntamiento.

ESKOLA INGURUA

MEDIO ESCOLAR

Osasunarekin harremana duten gai guztietan familia funtsezko oinarria da baina ikastetxeak duen garrantzia ezin da ahaztu, gazteek eguneko ordu pila bat bertan igarotzen baitute. Horregatik eta gure lanaren zati handi bat bertan egiten delako, jarraian ikastetxe desberdinetako bai irakasle eta koordinatzaileen baita ikasleen iritziak ere jaso ditugu.

En todos los temas relacionados con la salud, la familia es un pilar fundamental pero no por ello el centro escolar deja de tener importancia, ya que la juventud pasa muchas horas del día en él. Por ello y porque gran parte de nuestro trabajo se centra allí, a continuación recogemos las opiniones tanto del profesorado y coordinadores de varios centros escolares como del alumnado.

IRAKASLE ETA KOORDINATZAILEAK PROFESORADO Y COORDINADORES/AS

Ikastetxeetako arduradunentzat adikzio bat, ekintza edo sustantzia baten kontsumo errepikatu eta kontrola ezina da, menpekotasun fisiko eta psikologikoa eragiten baitu eta ondorioz bizitzako egunerokotasuna eragozten duena.

Adikzioen inguruan, beraien udalerrietan hurrengo hauek existitzen direla azpimarratzen dute:

- Tabakoa eta alkohola: Beraien ustez, kontsumoa 14-15 urterekin hasten da, baina mendekotasuna 18 urtetik aurrera agertzen da, maila ekonomikoa edozein dela ere, nahiz eta ikasleen artean alkohol kontsumo nabaria dagoen. Ez dute gizon eta emakumeen arteko desberdintasunik ikusten.
- Kannabisa: Kontsumoa 14 urterekin hasten dela diote eta gizonezkoetan maizago ematen dela, lan edo egoera ekonomikoa edozein delarik.
- Droga sintetikoak: Kontsumoa 15-20 urte bitartean hasten da, sexua eta ekonomia maila edozein delarik. Hala ere, maila ekonomikoaren arabera droga mota desberdinak kontsumitzen direla diote.
- Teknologia berriak: Kontsumoa haurtzaroan hasten dela azpimarratzen dute, baina beraien erabilera jarraitua 10-13 urtetik aurrera ematen dela batez ere; sexua eta maila ekonomikoa edozein dela ere.
- Ludopatiak: 16-20 urtetik aurrera agertzen dira jokabide arazotsuak, batez ere gizonezkoetan, lan edo egoera ekonomikoa edozein delarik.
- Gorputz itxuraren mendekotasuna: Nerabezaroan du hasiera, bai emakumezko zein gizonezkoetan eta egoera ekonomiko erdi eta altua duten pertsonetan ematen dela bereziki deritzote.

Desde los centros escolares definen la adicción como una acción o consumo repetitivo e incontrolable de una sustancia, que genera tanto dependencia física como psicológica, dificultando el día a día de la persona.

Con respecto a las adicciones que existen en sus municipios citan las siguientes:

- Tabaco y alcohol: Opinan que el consumo se inicia a los 14-15 años, pero la dependencia se desarrolla a partir de la mayoría de edad, siendo su consumo igual en hombres y en mujeres, independientemente del nivel económico. Aunque destacan el consumo abusivo de alcohol entre la población estudiantil.
- Cannabis: Dicen que el consumo se inicia a partir de los 14 años, siendo más frecuente en los hombres, independientemente del nivel económico.
- Drogas sintéticas: Consideran que su consumo se da a partir de los 15-20 años, siendo su consumo igual en hombre y en mujeres. Sin embargo opinan que dependiendo del nivel económico variará el tipo de droga consumida.
- Nuevas tecnologías: Dicen que el uso comienza en la infancia, pero el uso continuado se da a partir de los 10-13 años. No consideran que haya diferencias ni en cuanto al sexo, ni en cuanto al nivel económico.
- Ludopatías: Se convierte en problemático a partir de los 16-20 años, sobre todo en hombres, independientemente del nivel económico.
- Apariencia física: Surge en la adolescencia, independientemente del sexo. Opinan que es más frecuente en personas con un nivel económico medio-alto.

Orokorrean, ez dute kontsumitzaileen jatorriaren arabera desberdintasunik nabarmentzen, pertsona musulmanek alkohol kontsumo murriztuagoa dutela baino ez.

Aipatutako dependentzien arrazoiei buruz, ondorengoak zerrendatzen dituzte:

- Norberaren izaera
- Desegituraketa familiarra
- Arazo emozionalak
- Egoera ekonomikoa
- Faktore sozialak eta kulturalak
- Adina
- Bakardadea
- Gizarte ereduak

Adikzio arazoak dituzten pertsonen erabil ditzeketen baliabideetatik galdetzen zaizkien, hauek aipatzen dituzte:

- Udala
- Adikzioen Prebentzio Zerbitzua
- Gizarte zerbitzuak
- Osasun Zentroak (anbulategi eta ospitalak) eta Osasun Mentala
- Amankomunazgoko zerbitzuak (prebentzio eta laguntzazkoa)
- Ikastetxeak
- Kultur elkarteetan

Adikzioen Prebentzio Zerbitzua herritarren eskura egon behar duela uste dute, modu koordinatuan ikastetxe, familia eta herriarekin orokorrean elkar lanean. Izan ere, ezinbestekoa da gizartearen begirada aldatzea adikzioen egungo egoera hobetzeko.

Irakokizunei dagokienez, menpekotasun emozioanala ere aipagarri dela deritzote, gehienbat emakumezkoetan.

No destacan diferencias en cuanto a la procedencia de las personas consumidoras, solamente mencionan que el consumo de alcohol es menor en personas musulmanas.

Como motivos de estas adicciones apuntan los siguientes:

- La personalidad de cada individuo
- Desestructuración familiar
- Problemas emocionales
- Situación económica
- Factores sociales y culturales
- Edad
- Soledad
- Referentes sociales

En relación a los recursos que disponen las personas con problemas de adicciones destacan:

- Ayuntamiento
- El Servicio de Prevención de Adicciones
- Servicios Sociales
- Centros de Salud (ambulatorio y hospitales) y Salud Mental
- Los servicios de la Mancomunidad (prevención y asistencia)
- Centros escolares
- Asociaciones culturales

Crean que el Servicio de Prevención de Adicciones debería de estar al alcance de toda la ciudadanía, trabajando de manera coordinada y conjunta con centros escolares, familias y con los y las ciudadanas en general. De hecho, consideran imprescindible cambiar la mirada de la sociedad para poder ejercer un cambio y mejora real en la situación de las adicciones.

En cuanto a las sugerencias, mencionan la relevancia de la adicción emocional, especialmente su incidencia en mujeres.

IKASLEAK / ALUMNADO

Inkesta erantzun duen ikaslegoak, substantzia bat hartzeko beharrari deitzen dio adikzioa, mendekotasuna duen pertsonarentzat bizitzarako beharrezkoa eta kaltegarria den zerbait bezala ikusten dute.

Adikzioen inguruan, beraien udalerrietan hurrengo hauek existitzen direla azpimarratzen dute:

- Tabakoa: Beraien ustez, tabako kontsumoa 16 urtekin hasten da, sexua eta lan edo ekonomi egoera edozein delarik.
- Alkohola: Kontsumoa 16 urterekin hasten dela deritzote, gehienbat gizonezkoetan. Lan edo egoera ekonomikoari erreparatuz, langabezi edo ekonomia maila baxuarekin erlazionatzen dute.
- Kannabisa: Marihuana eta hatxis kontsumoa 16 urtetik aurrera ematen da, gutxi gora behera 30 urterarte, gizonezkoak izanik droga honen gehiengo kontsumitzaile. Gainera, kontsumitzaile gehiengoan lanik gabe dagoela edo kontsumitzeko erabiltzen duten dirua gurasoek emandakoa dela uste dute.
- Kirol apustuak: Jokatzeko 16 urtetik aurrera hasten dela diote, diru kantitate txikiak xahutuz egunero. Gizonezkoekin lotzen duten jokaera arazotsua da. Gazteen kasuan gurasoek emandako dirua erabiltzen dute, baina pertsona helduetan lan egoera edo ekonomia maila baxuetan gertatzen dela bereziki uste dute.

Ez dute lan-maila, maila ekonomiko eta jatorriaren arabera, kontsumoetan desberdintasunik ikusten.

Para el alumnado que contestó la encuesta, una adicción supone no poder dejar de tomar una sustancia, ya que su consumo se convierte en una necesidad vital que provoca daños importantes en el individuo.

Cuando se les pregunta sobre las adicciones que creen ellos/as que existen en su municipio opinan lo siguiente:

- Tabaco: Opinan que el consumo de tabaco comienza a los 16 años y que no se hayan diferencias ni por sexo ni por situación laboral o económica en el consumo de esta.
- Alcohol: Creen que se comienza a beber alcohol con 16 años, especialmente los hombres. Asocian su consumo a personas con un bajo nivel socioeconómico.
- Cannabis: Dicen que el consumo de hachís y marihuana empieza a partir de los 16 años y se alarga hasta los 30 años aproximadamente, siendo los hombres los que más la consumen. Además, consideran que la mayoría de personas consumidoras está en desempleo o el dinero que reciben es de sus progenitores.
- Apuestas deportivas: En su opinión, la gente comienza a jugar a partir de los 16 años, apostando a diario una pequeña cantidad de dinero. Es una conducta problemática que se asocia a los hombres. En el caso de los jóvenes el único ingreso económico es el dinero dado por sus padres, pero en el caso de hombres adultos lo asocian a una situación de desempleo y a un bajo nivel económico.

No ven distinción en cuanto a nivel económico-laboral ni procedencia en ninguno de los consumos.

Drogak, bideo-jolasak, etab erabiltzearen arrazoen artean, hauek aipatzen dituzte:

- Dibertitzeko
- Dirua irabazteko
- Mendekotasun psikologiko eta fisiologikoa.

Biztanleriak erabilgarri dituen baliabideei dagokienez, "ez dakit"-ela erantzun dute.

Adikzioen Prebentzio Zerbitzuak drogen inguruko informazioa objetibotasunez eskaini beharko luke, bai arriskuak, zein onurak posibleak kontuan izanik. Ildo beretik, adikzioaren bizipenak eta ondorioak lehenengo pertsonan bizi izan dituen norbaiten hitzaldietara joatea gustatuko litzaieke.

Entre los motivos por los que se consumen drogas, los videojuegos, etc comentan los siguientes:

- Para divertirse
- Para ganar dinero
- Dependencia psicológica y fisiológica

En relación a los recursos que dispone la población, reconocen no conocer ninguno.

Consideran que el Servicio de Prevención en Adicciones debe ofrecer información objetiva sobre las drogas, teniendo en consideración tanto los peligros como los posibles beneficios. Asimismo, opinan que les gustaría poder asistir a charlas en las que personas que han padecido alguna adicción cuentan su experiencia en primera persona.

FAMILIA INGURUA

MEDIO FAMILIAR

Osasunarekin harremana duten gai guztietan familia oso garrantzitsua da. Bertan, seme-alabek bizitza osasuntsu bat izan dezaten, balore, sinesmen, arau, ohitura eta jarrera funtsezkoak transmititzen baitira.

Familia ez da mundutik isolatuta dagoen entitatea, ikastetxearekin eta beste gurasoekin harremanetan baitago Guraso Elkartearen bidez.

Guraso Elkartek, adikzioen prebentzioa lantzeko, hausnarketak, eztabaidak eta esperientziak elkarri adierazteko, baliagarriak dira. Honek, arazo askoren konponbidea eta erabakiak hartzea errazten du, beste gizarte arduradunekin bat, adikzioekin bat ez doan bizitza eredu bat sortzeko ahaleginetan aritzeaz gain.

En todos los temas relacionados con la salud, la familia es un pilar fundamental ya que en su seno se transmiten valores, creencias, normas, hábitos y actitudes básicas para que los hijos e hijas tengan una vida sana y saludable.

El núcleo familiar no es una entidad aislada del mundo, sino que se interrelaciona con la misma escuela y con otros padres y madres a través de las Asociaciones de Padres y Madres.

La unión de los padres y madres en el seno de una Asociación es útil para abordar la prevención de las adicciones, propiciar la existencia de un espacio de discusión, reflexión e intercambio de experiencias. Ello facilita la solución de numerosos conflictos y la toma de decisiones, además de cooperar, junto con el resto de los responsables sociales, en generar un estilo de vida incompatible con las adicciones.

GURASO ELKARTEA / TXINTXIRRI GURASO ELKARTEA

Kontaktuan jarri garen Guraso Elkarte honen ustez, adikzioa, zerbait egitera bultzatzen dizun nahitaezko beharra da, edonon eta edonoiz ager daitekeena.

Guraso moduan ikusten dituzten adikzioak ondorengo hauek dira:

- Tabakoa: Gurasoek. mendekotasuna 30 eta 60 urte bitarteko pertsonetan agertzen dela uste dute, sexua eta egoera ekonomikoa edozein delarik.
- Alkohola: Adikzioa helduaroan sortzen dela diote (30-60 urte bitartean), gizonetan emakumeetan baino gehiago gertatzen delarik. Hala ere edozein lan edo egoera ekonomikorekin lotzen dute.
- Beste drogak: Mendekotasuna 20 eta 45 urte bitartean sortzen da, batez ere gizonetan, beraien egoera ekonomikoa edozein delarik.
- Ludopatia: Jokabide arazotsuak 40 eta 70 urte bitarteko pertsonetan ematen dela deritzote, sexua eta lan edo egoera ekonomikoa edozein delarik.

Esandako menpekotasunen arrazoiak ondorengo hauek direla azpimarratzen dute:

- Gizartearen ezezagutza gaiaren inguruan
- Autoestima baxua
- Familia arazoak
- Lan egoera eta egoera ekonomikoa
- Gizartearen joera eta ohitura kulturalak

Adikzioen bat duen pertsona batek erabil ditzakeen baliabide bezala, Amankomunazgoa baino ez dute izendatzen.

Guraso Elkartearen iritzitan, Adikzioen Prebentzio Zerbitzuak ikastetxeetan hitzaldiak ematen jarraitu behar du, familiekin elkar lanean eta kalean kontzientzia sortzen eta informazioa eskaintzen, bai kanpainen bidez, zein beste programa batzuen bitartez.

La asociación de padres y madres de Txintxirri Ikastola, con la que hemos contactado, define una adicción como una necesidad incontrolable de realizar ciertos actos, pudiendo surgir dicha necesidad en cualquier momento o lugar.

Las adicciones que ellos y ellas ven son:

- Tabaco: Las conductas adictivas con esta droga según este colectivo se dan entre los 30 y 60 años de edad, no habiendo diferencias por sexo ni situación económica.
- Alcohol: Dicen que la adicción se da en la edad adulta (entre los 30-60 años) y más en hombres que en mujeres, siendo la situación laboral o económica indiferente.
- Otras drogas: La dependencia surge entre los 20 y 45 años de edad, especialmente en los hombres, independientemente de su nivel económico.
- Ludopatía: Consideran que las conductas problemáticas aparecen entre los 40 y 70 años de edad, independientemente del sexo o la condición laboral o económica de la persona.

Entre los motivos de las adicciones citadas señalan:

- Desconocimiento de la sociedad en el tema
- Baja autoestima
- Problemas familiares
- La situación laboral y económica
- Actitudes y costumbres culturales de la sociedad

En cuanto a los recursos a los que puedan acudir las personas con algún tipo de adicción, solo mencionan a La Mancomunidad.

Según la Asociación de padres y madres, el Servicio de Prevención en Adicciones debería seguir dando charlas en los centros escolares, trabajando de manera coordinada con las familias y concienciando e informando por medio de campañas y otros proyectos a la ciudadanía del municipio.

KOMUNITATE INGURUA

MEDIO COMUNITARIO

Durungaldeko Gazte, Inmigratio eta Berdintasun teknikariei, "Dendak Bai"-eko arduradunei eta gazte elkartekoei galdetegia pasatu diegu.

Hauentzat adikzio bat, pertsona baten egunerokotasuna eta ongizatea baldintzatzen duen gaixotasuna da, non norbere buruaren kontrola galdu eta ondo sentitzeko inkontzienteki substantzia bat kontsumitzeko, ekintza bat egiteko edo harreman bat izateko etengabeko beharrez sortzen da. Menpekotasun hau sufritzen dutenentzat, hau gabe bizitzea ia ezinezkoa litzateke, izan ere jokaera puntual bat izatetik, ohitura bilakatu den zerbait da.

Beraien ustez, Amankomunazgoan dauden adikzioak hauek dira:

- Tabakoa: 14 urterekin hasi eta 65 urterarte erretzen dela deritzote, sexua eta egoera ekonomikoa edozein delarik.
- Alkohola: 13-14 urterekin kontsumitzen hasten da, 70 urterarte, sexua eta lan edo egoera ekonomikoa edozein delarik.
- Kannabisa: Hatxis eta marihuanaren mendekotasunak 15 eta 25 urte bitartean ematen direla uste dute. Gehien bat jende gazte edo ikasleekin erlazionatzen duten kontsumoa da, batez ere gizonezkoekin.
- Kokaina eta beste droga batzuk: 20-50 urte bitartean gertatzen da droga hauekiko dependentzia eta gizon kokainazale gehiago daudela uste dute, egoera ekonomikoa edozein delarik.
- Teknologi berriak (mugikorra): Hauen erabilpena 10 urtetik aurrera hasten da. Ez dute sexuan, ez maila sozioekonomikoan desberdintasuenik somatzen.
- Ludopatía: Jokoarekin gizonen arazo gehiago dituztela uste dute, bereziki 16 eta 30 urte bitarteko ikasle edo langileek.
- Erosketak: Jokaera arazotsuak 17-18 urterekin hasten dira beraien ustetan, batez ere arropa erosteko beharra emakumeetan.

Se ha realizado la encuesta a responsables de "Dendak Bai", a técnicos y técnicas de Juventud, Inmigración e Igualdad y a asociaciones de jóvenes de la comarca del duranguesado.

Este grupo de personas define la adicción como una enfermedad que condiciona el bienestar y el día a día de la persona, provocando una pérdida de control de los propios actos y una necesidad imperiosa de consumir una sustancia, de llevar a cabo ciertas conductas o relaciones con el fin de sentirse bien. Para las personas que desarrollan una adicción, es casi imposible vivir sin dicha sustancia o acto, ya que ha pasado de ser una conducta puntual a convertirse en un hábito.

Las adicciones que ellos y ellas aprecian en la Mancomunidad dicen ser las siguientes:

- Tabaco: Opinan que se comienza a fumar a los 14 años de edad y se alarga hasta los 65 años, independientemente del sexo o de la posición económica del individuo.
- Alcohol: El consumo se inicia a los 13-14 años y se alarga hasta los 70 años, no habiendo diferencias ni en cuanto al sexo ni al nivel socioeconómico.
- Cannabis: Consideran que la adicción al hachís y la marihuana se da entre los 15 y los 25 años, predominantemente en hombres jóvenes o estudiantes.
- Cocaína y otras drogas: La dependencia se da entre los 20 y los 50 años y creen que hay más hombres adictos a la cocaína, independientemente de su posición laboral y económica.
- Nuevas tecnologías (móvil): Su uso se da a partir de los 10 años y no ven diferencias en cuanto al sexo, ni a la situación económica.
- Ludopatía: Opinan que los hombres tienen más problemas con el juego, especialmente la población estudiantil y trabajadora de entre 16 a 30 años de edad.
- Compras: Opinan que las conductas problemáticas se inician entre los 17-18 años de edad y que son las mujeres quienes predominan en la compra de ropa.

Orokorrean, pertsona kontsumitzaileen jatorriak ez du eraginik adikzio desberdinen garapenean, alabaina biztanleria migrantean gehien kontsumitzen den substantzia tabakoa dela diote, alkohol eta beste droga batzuen kontsumoa oso urria baita.

En general creen que la procedencia de las personas consumidoras no influye en el desarrollo de una adicción. No obstante, comentan que la droga más consumida entre las personas migrantes es el tabaco, siendo el consumo de alcohol u otras drogas muy reducido.

Talde honek, aurreko menpekotasunen arrazoiak ondorengoak direla uste du:

- Emozioak kudeatzeko zailtasuna
- Giza trebetasun falta
- Estresa
- Frustrazioa
- Gizarte/talde presioa
- Osasun mental nahasmenak
- Adina/kontsumitzen hasteko adina
- Isolamendu soziala
- Dibertitzeko
- Heziketa eredu permisiboak
- Ohitura kulturalak
- Pertenentzia sentimendua
- Aukera edo etorkizun espektatiba falta
- Ingurugiro gatazkatsuak

Este colectivo opina que los motivos de dichas dependencias son:

- Dificultad para gestionar las emociones
- Falta de habilidades sociales
- Estrés
- Frustración
- Presión de grupo/social
- Trastornos mentales
- Edad/ edad de inicio en el consumo
- Exclusión social
- Diversión
- Modelos de educación permisivos
- Costumbres culturales
- Sentimiento de pertenencia
- Falta de alternativas o expectativas de futuro
- Entorno conflictivo

Duragaldeko gazte elkarteek ustetan ez dago baliabiderik eremu publikoan mendekotasun arazo baten aurrean lagun diezaienik. Beste parte hartzaileek, aldiz, honako baliabide hauek aipatzen dituzte:

- Osasun Mentaleko zentroa (Osakidetza)
- Durangoko Merinaldeko Amankomunazgoa
- Adikzioen Prebentzio Zerbitzua
- Osakidetza
- Gizarte Zerbitzuak

Según las diferentes asociaciones de jóvenes del Duranguesado, el área pública no dispone de servicios que atiendan la problemática de la adicción. Si embargo el resto de agentes comunitarios menciona los siguientes recursos:

- Centro de Salud Mental (Osakidetza)
- La Mancomunidad de Durango
- Servicio de Prevención en Adicciones
- Osakidetza
- Servicios Sociales

Adikzioen Prebentzio Zerbitzuak gazteekin egin beharko luke lanketa sakona, ikastetxeetan drogomendekotasunen inguruko ikastaroak eskaintzeaz gain, aisirako ekintza eta aukera gehiago proposatu beharko lituzke udalerriko beste gazte entitateekin elkarlanean (gazte topaketak, irteerak, etab.). Bestalde, Durangaldeko herritar guztiei zuzendutako sentsibilizazio ikastaro zabalen antolakuntza aipatzen dute, komunitateak dituen baliabideak aintzat hartuta, guztien parte hartzea beharrezkoa baita hobekuntzak bermatzeko.

Opinan que el Servicio de Prevención de Adicciones debería de trabajar especialmente con la juventud, ofreciendo, además de los talleres sobre drogodependencias, diferentes alternativas para el ocio y el tiempo libre por medio del trabajo en conjunto con las distintas entidades de juventud del pueblo (encuentros, salidas lúdicas, etc.). Asimismo, consideran que la participación e implicación de toda la comunidad es imprescindible para garantizar una mejora y un cambio, por lo que sugieren organizar cursos de sensibilización (sobre las adicciones), abiertos para toda la ciudadanía del Duranguesado, aprovechando los recursos comunitarios de los que se dispone.

GIZARTE ONGIZATE SAILA

AREA DE BIENESTAR SOCIAL

Durangoko Merinaldeko Amankomunazgoko gizarte-langileen eta GHET taldearen iritziak jaso ditugu.

Beraientzat adikzio bat mendekotasun fisiko edo psikikoa eragiten duen jokabide jarrai bat (mugikorra, apustuak,...) edota substatzia baten kontsumoa da. Egunerokotasunean modu egokian aritzeko gaitasunean eragiten du.

Adikzioei buruz, beraiek durangaldean ikusten dituztenak ondorengo hauek dira:

- Alkohola: Kontsumoaren hasiera nerabezaroan gertatzen dela diote eta sexuak edo egoera sozioekonomikoak ez dutela eraginik.
- Tabakoa: Kontsumoa pubertaroan hasten da.
- Kannabisa: Kontsumoak 13 urtetik aurrera ikusten dituzte.
- Beste droga ilegalak: 14-16 urtetik aurrera ikusten dituzte kontsumoak.
- Psikofarmakoak: Menpekotasuna, batez ere, 30 urtetik aurrerako emakumeetan ikusten dute.
- Jokoa eta apustuak: 15 urte inguruan ikusten dute kirol apustuen kasuan; 50 urtetik aurrerakoetan makinatan ikusten dutelarik. Gazteak batez ere mutilak dira eta helduen kasuan diru sarrera gutxi dutenak.
- Teknologia: Beraien ustetan, erabilera oso txikitatik gertatzen da eta arazoa pubertaroan hasten da.
- Kirola: Heduetan eta batez ere gizonezkoetan ikusten dute.
- Erosketak: Nerabezaroan eta batez ere nesketan.

Adikzio hauen arrazoi bezala, hauek zerrendatzen dituzte:

- Gabezia afektiboak
- Gurasoek heziketan parte ez hartzeak
- Familia eta giza inguru urria izatea
- Giza trebetasunik ez izatea
- Autoestima gutxi
- Kontsumo gizartea
- Lege permisiboak
- Interes komertzialak
- Harremantzeko modua
- Talde presioa

Se ha recogido la opinión de los trabajadores/as sociales y del EISE de la Mancomunidad de la Merindad de Durango.

Definen como adicción la conducta continuada (móvil, apuestas,...) o la toma de una sustancia que genera dependencia física o psicológica. Interfiere en el correcto funcionamiento diario.

En cuanto a las adicciones que ellos y ellas ven en el duranguesado enumeran las siguientes:

- Alcohol: El comienzo del consumo se produce en la adolescencia. Opinan que el sexo y la situación socio-económica no son determinantes.
- Tabaco: El consumo tiene inicio en la pubertad.
- Cannabis: Opinan que se dan consumos a partir de los 13 años.
- Otras drogas ilegales: Se producen consumos a partir de los 14-16 años.
- Psicofármacos: Consideran que la adicción a estas sustancias sucede sobre todo en mujeres a partir de los 30 años.
- El juego y las apuestas: El problema a las apuestas deportivas se produce a partir de los 15 años. En el caso de máquinas se da a partir de los 50 años. Los jóvenes son mayoritariamente chicos y las personas adultas son personas con rentas bajas.
- Tecnologías: Creen que el uso comienza desde la infancia y el problema comienza en la pubertad.
- Deportes: Sobre todo en hombres adultos.
- Compras: En la adolescencia, sobre todo en chicas.

Con respecto a los motivos para estas adicciones, señalan los siguientes:

- Carencias afectivas
- Padres y madres ausentes en la crianza
- Entorno familiar y social "pobre"
- Falta de habilidades sociales
- Poca autoestima
- Sociedad de consumo
- Leyes permisivas
- Intereses comerciales
- Como modo de relacionarse
- Presión de grupo

Adikzioen bat duen pertsona batek erabil ditzakeen durangaldeko baliabideak hauek direla esaten dute:

- Osasun Zentroak
- Zerbitzu Sozialak
- Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuak
- Elkarte eta erakunde desberdinak
- Terapia pribatuak
- Tratamendu Zentruak
- Proyecto Hombre

Prebentzio Zerbitzuak non eta zelan eragin behar duen galdetzerakoan jaso ditugun erantzunak hauek izan dira:

- Ikastetxeetan.
- Oso gaztetatik egitea prebentzioa.
- Gurasoekin lan egitea seme-alaben heziketan parte hartzeko eta beraien beharrei erantzuten jakiteko.
- Detekzio goiztiarra.
- Instituzioekin lan egitea, kontsumitzen den ekitaldietan sentsibilizazio gehiago egoteko, eta aisialdian gazteentzako baliabide osasuntsuak bultzatzeko.
- Kanpañak, tabernetan hitzaldiak,...

En cuanto a los recursos existentes en el duranguesado a los que puedan acudir las personas con algún tipo de adicción, destacan:

- Centros de Salud
- Servicios Sociales
- Servicios de Prevención de Adicciones
- Distintas asociaciones y organizaciones
- Terapias Privadas
- Centros de tratamiento
- Proyecto Hombre

Al preguntarles dónde y cómo debe actuar el Servicio de Prevención, sus respuestas han sido las siguientes:

- En los centros escolares.
- Prevención desde edades muy tempranas.
- Trabajar con padres y madres para que estén presentes en la crianza y sepan responder a las necesidades de sus hijos e hijas.
- Detección precoz.
- Trabajar con las instituciones para que adopten una actitud más sensible en los actos donde se consume, y para dotar de recursos saludables de tiempo libre a la juventud.
- Campañas, charlas en bares,...

ONDORIOAK - CONCLUSIONES

Amankomunazgoan dauden adikzioen inguruan eman dituzten erantzunak hauek izan dira:

- ✓ **Alkoholaren** kontsumoa gaztetan hasten bada ere (15 urte inguruan); dependentzia, batez ere, nagusitan gertatzen da. Gizonetan ematen da gehiago, eta batez ere langabetuetan. Emakumeen kasuan etxeko andreak izaten dira. **Tabakoaren** menpekotasuna 14-15 urtekin hasten da; nesketan gehiago gertatzen delarik. **Kannabisarekin** arazoak gazteetan gertatzen dira batez ere. Ikasle edo langabetuekin eta gizonezkoekin erlazionatzen dute kontsumoa. **Beste droga ilegalekiko** menpekotasuna gazte eta heldu batzuetan ikusten dute. Batez ere gizonezkoetan gertatzen da. Kokainaren kasuan langileak izaten dira eta heroinaren kasuan langabetuak. **Antsiolitikoekiko** menpekotasunari dagokionez, 30 urtetik gorako emakumeek sufritzen dutela diote. **Ludopatía** galdetutako guztiek aipatzen dute. Arazoa gero eta gazteagotan gertatzen dela ikusten dute. Nerabeen kasuan, gehienetan, ikasleak eta mutilak direla diote (kirol apustuak) eta helduen kasuan, gizonezkoak eta egoera ekonomiko txarrean daudenak. **Teknologi berrien** erabilera umetatik hasten dela diote eta arazoak nerabezaroan hasten direla. **Beste mendekotasun batzuk** ere aipatzen dituzte: kafearekiko (ikasleak); beste pertsona batzukiko, erosketekiko (nerabeak eta neskak), kirolarekiko (gizonezkoak eta helduak) eta gorputz itxurarekiko mendekotasuna.
- ✓ Adikzio hauek ematen diren **arrazoiak** pertsona bakoitzean desberdinak direla aipatzen dute, eta beste batzuen artean, ondorengo hauek aipatzen dituzte: bakoitzaren izaera, autoestimua baxua, ezegonkortasun emozionala, gabezia afektiboak, bakardadea, ebaditzeko nahia edo beharra, sozializatzeko zailtasunak, talde eta gizartearen presioa, gizartearen

Según las personas encuestadas, las adicciones existentes en la Mancomunidad son las siguientes:

- ✓ Aunque el consumo de **alcohol** comience en la adolescencia (aproximadamente a los 15 años), la dependencia se produce sobre todo en personas adultas. Se da más en hombres y sobre todo en parados. En el caso de las mujeres suelen ser amas de casa. La dependencia al **tabaco** se da hacia los 14-15 años, siendo más las chicas consumidoras. El problema con el **cannabis** se produce sobre todo en jóvenes. Relacionan el consumo con estudiantes o personas en paro, y con hombres. La adicción a **otras drogas** ilegales la ven en jóvenes y algunos adultos; sobre todo en hombres. En el caso de la cocaína dicen que suelen ser personas con un puesto de trabajo y en el de heroína personas en paro. En cuanto a la adicción a los **ansiolíticos**, la padecen mujeres mayores de 30 años. La **ludopatía** es una adicción que ha sido enumerada por todas las personas participantes en la encuesta. Opinan que el problema ocurre cada vez en más jóvenes. En el caso de adolescentes, dicen que son estudiantes y hombres en su mayoría (kirol apustuak); en el de adultos hombres, en una situación económica precaria. En el caso de las **nuevas tecnologías** consideran que se comienzan a usar desde la infancia y el problema comienza en la pubertad. También enumeran **otras adicciones**: al café (estudiantes), a otras personas, a las compras (chicas adolescentes), al deporte (hombres adultos) y al culto al cuerpo.
- ✓ En cuanto a las **causas** por las que se dan estas adicciones, señalan que en cada persona pueden ser distintas e indican las siguientes: la personalidad, baja autoestima, inestabilidad emocional, carencias afectivas, soledad, necesidad o querer evadirse, dificultades para socializar, presión del grupo y de la sociedad, costumbres y hábitos de la sociedad, banalización, poca información,

joera eta ohiturak, banalizazioa, informazio gutxi, nerabegaroko kontrakultura, familia desestruturatu, giza inguru urria, gurasoen denbora falta, heziketan parte ez hartzea, ingurugiro gatazkatsuak, egoera ekonomikoa, osasun mentala, interes komertzialak.

- ✓ Adikzio arazo bat edukiz gero, ezagutzen dituzten **Amankomunazgoko baliabideak** hauek dira: Osasun Zentroak eta Osasun Mentala, Adikzioen Prebentzio Zerbitzua, Gizarte Zerbitzuak, familia ingurua, ospitaleko Desintoxikazio Unitateak, Komunitate Terapeutikoak, prebentzio eta sostengurako programak (Hirusta, Gizakia, Etorkintza), terapia pribatuak, ikastetxeak, kultur elkarteak,...

Adikzioen Bigarren Plan Lokala egiten lagundu zuten pertsonak, ordezkariak, taldeak eta kolektiboak, Adikzioen Prebentzioan, beraien ustez, beharrezkoak izan daitzezkeen **ekintza batzuk** adierazi dituzte. Hauen artea:

- ✓ Ikastetxeetan lan eginez. Nerabe eta gazteetan eraginez, baina baita haurretan; prebentzioa txikitatik hasten da eta. Irakasleentzako ikastaroak eskainiz.
- ✓ Familiekin lan eginez. Seme-alaben heziketan parte hartzeko eta beraien beharrei erantzuten jakiteko.
- ✓ Komunitate guztia inplikatzeko sentsibilizazio kanpainak eginez.
- ✓ Kalean. Gazte gunetan aritzea eta aisirako ekintza eta aukera gehiago proposatu; baliabide osasuntsuak bultzatuz. Gazte lokaletan esku hartuz. Tabernetan hitzaldiak eginez.
- ✓ Jaietan furgonetak (Ai Laket!), alkohola landu, autobusak jarri, kontsumo arduratsua bultzatu.
- ✓ Detekzio goiztiarra egitea.
- ✓ Estatistikak atera.
- ✓ Sostengurako taldeen hedaketa gauzatzea.

contracultura de la adolescencia, familia desestructurada, entorno social pobre, falta de tiempo de la familia, no tomar parte en la educación, entorno conflictivo, situación económica, salud mental, intereses comerciales.

- ✓ Respecto a los **recursos que conocen en la Mancomunidad** a los que acudir en caso de tener algún problema de adicciones son los siguientes: Centros de Salud y Salud Mental, el Servicio de Prevención de Adicciones, Servicios Sociales, entorno familiar, Unidades de Desintoxicación del hospital, Comunidades Terapéuticas, programas de prevención y apoyo (Hirusta, Gizakia, Etorkintza), terapias privadas, centros escolares, asociaciones culturales,...

Las personas, representantes, grupos y colectivos que participaron en la elaboración del Segundo Plan Local de Adicciones, marcaron unas **líneas de actuación**, que según su opinión, serían necesarias en la prevención de adicciones:

- ✓ Trabajando en los centros escolares. Con adolescentes y jóvenes, pero también con niños y niñas; porque la prevención comienza desde la infancia. Ofertando cursos para el profesorado.
- ✓ Trabajando con las familias. Para que se impliquen en la educación de sus hijos e hijas y aprendan a responder a sus necesidades.
- ✓ Hacer campañas de sensibilización para implicar a toda la sociedad.
- ✓ En la calle. Trabajar en los "gazte gunes" y hacer una mayor oferta de tiempo libre saludable. Trabajar en los locales de jóvenes. Hacer charlas en los bares.
- ✓ En fiestas: furgonetas (Ai Laket!), trabajar el alcohol, poner más autobuses, potenciar el consumo responsable.
- ✓ Hacer una detección precoz.
- ✓ Sacar estadísticas.
- ✓ Potenciar la formación de grupos de apoyo.

Idatzi honetan eta beste idatzi batzuetan aurkitu diren ardurei, 2019-2023 urteko ekintzetan ekin beharko zaie (programen jarraipen bezala edo programa berrien bidez), gizarte ordezkari, gizarte zerbitzu, Osakidetza, elkarte eta komunitatearen laguntzarekin.

Estas y otras preocupaciones reflejadas en el presente escrito deberán ser abordadas (como continuación de programas existentes o en la incorporación de nuevos programas) en la ejecución de actividades durante el periodo 2019-2023, contando con la participación activa de diferentes representantes sociales, servicios sociales, Osakidetza, asociaciones y de la comunidad en general.

.

C) Jarraipen eta ebaluazio tresnak

Instrumentos de seguimiento y evaluación

Adikzioen Planaren ebaluaketa, egiten joango diren jarduera desberdinen ebaluaketatik pasatzen da.

DMA Adikzioen Prebentzio Zerbitzutik, ekintza bakoitza bukatu ondoren ebaluaketa bat egingo da. Ebaluaketa hauetan partehartzaileen asetasun maila eta ekintzak burutzeko orduan aurkitu dituzten hutsuneak adieraziko dira. Jarduerak prestatzeko orduan, erabiltzaileek adierazten dituzten behar eta interesak ere kontutan hartuko dira.

Lau urterik behin, gazte eta nerabeen artean ikerketa bat egiten da. Ikerketa honetan, kontsumoei buruzko datu kuantitatiboak eta drogak, aisialdi eta familiaren aurrean zein portaera eta jarrerak dituzten batu dira. Burututako azken ikerketan, teknologi berrien erabilera eta jokatzeko ohiturei buruzko informazioa ere jaso da. Lortutako datu hauek oso baliabide egokiak dira proiektuen helburuak betetzen diren edo ez ebaluatzeko orduan.

La evaluación del plan de adicciones pasa por la evaluación de las distintas actividades que se vayan realizando.

Desde el Servicio de Prevención de Adicciones de la MMD se realizarán evaluaciones al finalizar cada actividad. En estas evaluaciones se reflejará el grado de satisfacción de las personas participantes, así como las carencias que han percibido al realizar la actividad. En la elaboración de actividades, también se tendrán en cuenta las necesidades e intereses que aportan las personas usuarias.

Cada 4 años venimos elaborando una investigación en jóvenes y adolescentes. En esta investigación se recogen tanto datos cuantitativos de consumos, como datos sobre actitudes y comportamientos relacionados con las drogas, al ocio y la familia. En la última investigación realizada, también se ha recogido información sobre el uso de nuevas tecnologías y hábitos de juego. Estos datos son una buena herramienta de evaluación para comprobar si los proyectos que se realizan cumplen sus objetivos o no.

6. - ESKU-HARTZE PROIEKTUAK PROYECTOS DE ACTUACIÓN

“DMAko adikzioen prebentzio espezifikoko” gure programan proiektuak burutzeko hiru eremu desberdintzen ditugu.

- ESKOLA EREMUA.
- FAMILIA EREMUA
- EREMU KOMUNITARIOA.

“2019-2023 Adikzioen Plan Lokalak” irauten duen bitartean burutuko diren proiektuak honako hauek dira; beti ere beharrei eta ebaluaketen emaitzei egokitzuz.

ESKOLA MAILAKO PROIEKTUAK:

A) ADIN TXIKIKOETAN OSASUN HEZIKETA PROIEKTUAK:

"Baloreetan heziketa"

"Emozioei buruzko programa"

"Heziketa afektibo-sexuala Lehenengo Hezkuntzan"

"Heziketa afektibo-sexuala Bigarren Hezkuntzan"

...

B) TABAKO ETA ALKOHOL KONTSUMOAREN PREBENTZIO PROIEKTUAK IKASTETXEETAN:

"Tabako tailerra"

"Alkohol tailerra"

"Tabakoa eta alkohola"

...

En nuestro programa de "Prevención específica de las adicciones de la MMD" distinguimos tres ámbitos de actuación para la ejecución de los proyectos:

- ESCOLAR.
- FAMILIAR
- COMUNITARIO.

Durante la vigencia del "Plan Local de Adicciones 2019-2023" los proyectos que se trabajaran son los siguientes; siempre adaptándonos a las necesidades y teniendo en cuenta las evaluaciones.

PROYECTOS A NIVEL ESCOLAR:

A) PROYECTOS DE EDUCACIÓN PARA LA SALUD EN MENORES:

"Educación en Valores"

"Programa sobre emociones"

"Educación Afectivo-sexual en la Educación Primaria"

"Educación Afectivo-sexual en la Educación Secundaria"

...

B) PROYECTOS DE PREVENCIÓN DEL CONSUMO DE TABACO Y ALCOHOL EN LOS CENTROS EDUCATIVOS:

"Taller de tabaco"

"Taller de alcohol"

"Tabaco y alcohol"

...

C) DROGEN KONTSUMOAGATIK ARRISKU KOLEKTIBOETAN PREBENTZIO PROIEKTUAK:

“Droga desberdinen eta ludopatiaren
prebentzio selektibo eta zehatza”

“Arrisku alkohola”

“Emozioei buruzko programa” Oinarrizko
Lanbide Heziketan

...

D) TEKNOLOGIEN ERABILERA EGOKIA ETA LUDOPATIAREN PREBENTZIO PROIEKTUAK:

“Teknologia berriei buruzko tailerra”

“Droga desberdinen eta ludopatiaren
prebentzio selektibo eta zehatza”

...

FAMILIA MAILAKO PREBENTZIO PROIEKTUAK:

ADIKZIOEN PREBENTZIOAN FAMILIENTZAKO TREBAKUNTZA PROIEKTUAK:

“Familientzako eskola” (adikzioak,
teknologiak, ...)

“Familientzako hitzaldiak”

“Lotura afektiboak sendotzen jaio aurretik”

...

KOMUNITARIO MAILAKO PROIEKTUAK:

A) SUBSTANTZIA KALTEGARRIEN ERABILERA ETA GEHIEGI ERABILTZEARI BURUZKO INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUAK:

“Tabakorik Gabeko Nazioarteko Eguna:
Maiatzak 31”

“Alkohol kontsumoaren arrisku murrizketa
herrietako jaietan”

“Preserbatiboen banaketa herrietako
jaietan”

“Informazio orrien edizio eta banaketa”

...

C) PROYECTOS DE PREVENCIÓN EN COLECTIVOS DE RIESGO POR CONSUMO DE DROGAS:

“Prevención selectiva e indicada del
consumo de drogas y de la ludopatía”

“Riesgo-alcohol”

“Programa sobre emociones” en
Formación Profesional Básica

...

D) PROYECTOS SOBRE EL USO ADECUADO DE LAS TECNOLOGÍAS Y PREVENCIÓN DE LA LUDOPATÍA:

“Taller sobre nuevas tecnologías”

“Prevención selectiva e indicada del
consumo de drogas y de la ludopatía”

...

PROYECTOS A NIVEL FAMILIAR:

PROYECTOS DE FORMACIÓN PARA FAMILIAS EN PREVENCIÓN DE ADICCIONES:

“Escuela de familias” (adiciones,
tecnologías, ...)

“Charlas para familias”

“Fortaleciendo vínculos afectivos desde
antes de nacer”

...

PROYECTOS A NIVEL COMUNITARIO:

A) PROYECTOS DE INFORMACIÓN Y SENSIBILIZACIÓN SOBRE EL USO Y ABUSO DE SUSTANCIAS NOCIVAS:

“Día Mundial Sin Tabaco: 31 mayo”

“Reducción de riesgos asociados al
consumo de alcohol en fiestas”

“Reparto de preservativos en fiestas
patronales”

“Edición y distribución de folletos
informativos”

...

**B) SUBSTANTZIA KALTEGARRIEN
KONTSUMOAREN MENPEKOTASUNA
GAINDITZEKO PROIEKTUAK:**

"Tabakoaren menpekotasuna gainditzeko ikastaroak"

"Psikofarmakoak denbora luzez kontsumitzen dituzten emakumeentzako, menpekotasuna gainditzeko ikastaroa"

...

**C) ADIKZIOEN PREBENTZIOAN
DOKUMENTAZIO, ARRETA ETA
AHOLKULARITZA ZENTROA
PROIEKTUA. TEKNIKOEN
FORMAKUNTZA.**

**B) PROYECTOS DE DESHABITUACIÓN
DEL CONSUMO DE SUSTANCIAS
NOCIVAS:**

"Cursos de deshabituación al tabaco"

"Curso de deshabituación para mujeres con consumos prolongados de psicofármacos"

...

**C) PROYECTO CENTRO DE
DOCUMENTACIÓN, ATENCIÓN Y
ASESORAMIENTO EN PREVENCIÓN
DE ADICCIONES. FORMACIÓN DEL
PERSONAL TÉCNICO.**

ESKOLA MAILAKO PREBENTZIOA

PREVENCIÓN A NIVEL ESCOLAR

Adikzioen Prebentzio Komunitarioan garrantzia handia du eskola eremuko prebentzioak. Ikastetxeak egoera pribilegiatu batean daude prebentzioaren aurrean, lan hau burutzeko hainbat abantaila dituztelako: haur eta gazte guztietara heltzea, adin berdintsua duten taldeak izatea, beraiekin jarduera jarraituak egin ahal direlarik. Honez gain, eskolak balore eta portaera ereduen igorpenean paper garrantzitsua betetzen du.

Adikzioen prebentzioa ezin da ulertu heziketa orokorretik kanpo. Eskolan egunerokotasunetik egin daiteke prebentzioa, jarduera ikusgarriak egiteko beharrik gabe. Substantzia eta efektuei buruz zuzenean hitz egiten ez bada ere; eskolak tresna eta balore egokiak eskaintzen badizkio ikasleari, bere autoestimua, emozioak kudeatzeko gaitasuna eta giza trebetasunak hobetuz prebentzioa egiten ari da.

Zeharkako hezkuntzaren bidez lan handia egin daiteke prebentzioari dagokionez. Ikasleak informatuz eta batez ere erantzukizunean eta askatasunean heziz; beraien garapen osoa bultzatuz eta bizitza osasungarri bat eramaten lagunduko dien erabaki-hartze eta parte-hartzea indartuz.

Egokia litzateke Adikzioen Prebentzioaren jarduerak Osasun Hezkuntzan barneratuak egotea; ohikoak diren eduki kurrikular guztietan zeharka agertuz; eta aldi berean, ikastetxeetako heziketa-proiektuen barnean sartuta egotea, pertsonaren garapen osoa eta harmonikoa lortzeko balore bezala.

En la Prevención Comunitaria de las Adicciones juega un papel fundamental la prevención en el medio escolar. Los Centros Educativos están en una situación privilegiada de cara a la prevención, ya que presentan una serie de ventajas para poder desarrollar esta labor: poder llegar a toda la población infantil y juvenil, contar con una población similar en cuanto a edad y con la que es posible una actuación continuada. Además la escuela desempeña un rol importante en la transmisión de modelos de comportamiento y valores.

La prevención de las adicciones no puede considerarse al margen de la educación general. En el medio escolar se puede prevenir desde la cotidianeidad, sin necesidad de realizar actividades espectaculares. Aunque directamente no se hable de adicciones, si la escuela ofrece al alumnado herramientas y valores adecuados, mejorando su autoestima, la capacidad de gestionar emociones y dotando de habilidades sociales ya se está haciendo prevención.

Desde la transversalización se puede hacer una gran labor de cara a la prevención, informando, a veces, y fundamentalmente formando y educando al alumnado en la responsabilidad y en la libertad; promocionando su desarrollo integral como personas y potenciando su participación y toma de posturas activas que conlleven a un desarrollo de su vida sana y saludable.

Las actividades de prevención de adicciones es conveniente que estén integradas en el marco de la Educación para la Salud, transversalizadas en todos los contenidos curriculares habituales y así mismo, incluidas en los proyectos educativos de los centros como uno de los valores a conseguir para el desarrollo integral y armónico de la persona.

Gure komunitateko ikastetxeek prebentzio unibertsala egiteko ahaleginetan parte hartzen dute. Heziketa oso bat egiteaz gain, Osasun-Hezkuntzako jarduerak eginez, drogei eta beste adikzio batzuei buruzko informazioa emanez eta proiektu sendo eta tinkoak garatuz eta aurrera eramanez.

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko ikastetxeak honako hauek dira:

Haur eta Lehen Hezkuntza:

- Durangoko Landako Eskola
- Durangoko Zabalarra Eskola
- Durangoko Kurutziaga Ikastola
- Durangoko Nevers
- Durangoko San Antonio
- Durangoko San José Jesuitak
- Iurretako Maiztegi Eskola
- Elorrioko Eskola
- Elorrioko Txintxirri Ikastola
- Elorrioko Ntra. Sra. de Lourdes
- Abadiñoiko Matienako Eskola
- Abadiñoiko Zelaietako Eskola
- Zaldibarko Eskola
- Otxandioko Eskola
- Atxondoko Eskola
- Mallabiko Eskola

Bigarren Hezkuntza:

- Durangoko BH Institutua
- Durangoko Kurutziaga Ikastola
- Durangoko Nevers
- Durangoko San Antonio
- Durangoko San José Jesuitak
- Iurretako J. Orobiogoitia
- Elorrioko BH Institutua
- Elorrioko Txintxirri Ikastola
- Elorrioko Ntra. Sra. de Lourdes
- Abadiñoiko BH Institutua

Derrigorrezkoaren Ondoko Hezkuntza:

- Durangoko F. J. Zumarraga Institutua
- Durangoko San José Jesuitak
- Durangoko San José Maristak
- Durangoko Ibaizabal Ikastola
- Durangoko Oinarritzko Lanbide Heziketa
- Iurretako Lanbide Heziketa

Los Centros Educativos de nuestra comunidad contribuyen a los esfuerzos comunitarios de prevención universal, no sólo a través de una adecuada educación global, sino también con la realización de actividades de Educación para la Salud, la información sobre drogas y otras adicciones y el desarrollo y aplicación de proyectos firmes y consistentes.

Los centros educativos de la Mancomunidad de la Merindad de Durango son:

Educación Infantil y Primaria:

- Landako Eskola de Durango
- Zabalarra Eskola de Durango
- Kurutziaga Ikastola de Durango
- Nevers de Durango
- San Antonio de Durango
- San José Jesuitak de Durango
- Maiztegi Eskola de Iurreta
- Elorrioko Eskola
- Txintxirri Ikastola de Elorrio
- Ntra. Sra. de Lourdes de Elorrio
- Matienako Eskola de Abadiño
- Zelaietako Eskola de Abadiño
- Zaldibarko Eskola
- Otxandioko Eskola
- Atxondoko Eskola
- Mallabiko Eskola

Educación Secundaria:

- Instituto de Secundaria de Durango
- Kurutziaga Ikastola de Durango
- Nevers de Durango
- San Antonio de Durango
- San José Jesuitak de Durango
- J. Orobiogoitia de Iurreta
- Instituto de Secundaria de Elorrio
- Txintxirri Ikastola de Elorrio
- Ntra. Sra. de Lourdes de Elorrio
- Instituto de Secundaria de Abadiño

Educación Post-Obligatoria:

- Instituto F.J. Zumarraga de Durango
- San José Jesuitak de Durango
- San José Maristas de Durango
- Ibaizabal Ikastola de Durango
- Instituto de Formación Profesional Básica de Durango
- Instituto de Formación de Iurreta

ESKOLA EREMUKO PROGRAMAREN barruan, beti ere beharrei eta emaitzen ebaluaketei egokituz, 2019-2023 tartean burutuko diren proiektuak honako hauek dira:

A) Adin txikikoetan Osasun Heziketa proiektua

Proiektu hau Derrigorrezko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendua dago; bertan, modu dinamiko eta partizipatiboan osasun-hezkuntzarekin erlazionatuta dauden aspektu ezberdinak landuko dira: heziketa afektibo-sexuala, baloreen hezkuntza, inteligentzia emozionala,.. Aspektu ezberdinak lantzen dituzten material eta tailerrak burutzen dira: autoestimua, talde presioa, erabakiak hartzea, emozioen kudeaketa, nerabezaroa,...

Ikasleengana heltzea da helburua, menpekotasun eta osasunarentzat kaltegarriak zaizkien portaeren aurrean hartu beharko dituzten erabaki arduratsuetan baliagarriak izango zaizkien bizipen, esperientzia, ezagutza eta trebeziak eskainiz. Esku-hartze hauek Ikastetxe eta Adikzioen Prebentzioaren Zerbitzuaren arteko koordinazioaren bidez egingo dira, bai irakasleek eta baita prebentzio teknikariek aktiboki parte hartuko dutelarik.

Proiektu hauek Durangoko Amankomunazgoko LH eta DBHko zentro guztiei eskainiko zaie.

"BALOREETAN HEZIKETA"

Jarduera hau Amankomunazgoko Lehen Hezkuntzako zentroetako ikasleei zuzendurik dago.

Jardueran heziketa-eragile nagusiak **irakasleak** izango dira. Lehenengo faseetan kanpoko laguntza teknikoarekin, hurrengo kurtsoetan beraiek modu autonomo batean jarrai dezaten. Jarduerak zentroko funtzionamendu normalean integratuak egongo dira, tutoretza orduetan edo ikastetxeak aukeratutako beste ordu batzuetan.

Dentro del **PROGRAMA DE AMBITO ESCOLAR**, y siempre adaptándonos a las necesidades y teniendo en cuenta las evaluaciones, los proyectos a desarrollar en el periodo 2019 – 2023 son los siguientes:

A) Proyecto de Educación para la Salud en menores

Es un proyecto dirigido al alumnado de la Educación Primaria y Secundaria Obligatoria en el que se trabajan de manera dinámica y participativa diferentes aspectos relacionados con la educación para la salud: educación afectivo-sexual, educación en valores, inteligencia emocional,... Se realizan materiales y talleres que trabajan diferentes aspectos como la autoestima, presión de grupo, toma de decisiones, gestión emocional, adolescencia,...

Pretende intervenir en el alumnado aportándoles vivencias, experiencias, conocimientos y habilidades que le sean útiles en su decisión responsable frente a las dependencias y comportamientos perjudiciales para la salud. Estas intervenciones se realizarán mediante la coordinación de los Centros Escolares y el Servicio de Prevención de Adicciones; siendo parte activa en el proyecto tanto el profesorado como el equipo de Prevención.

Estos proyectos se ofertan a todos los centros de Primaria y Secundaria de la Mancomunidad de Durango.

"EDUCACIÓN EN VALORES"

Esta actividad va dirigida al alumnado de los centros de Educación Primaria de la Mancomunidad.

Los agentes educativos de actuación serán principalmente **los profesores y profesoras** con apoyo técnico externo, en las primeras fases, para seguir ellos de forma autónoma en posteriores cursos. Las actividades estarán integradas en el funcionamiento normal del centro, llevándose a cabo en la asignatura de tutorías o en otra designada por el centro.

Lantzen diren gai batzuk hauek dira:

-  Gu, gure buruarekin
-  Besteak eta gu
-  Adiskidetasuna
-  Autoestimua
-  Kooperazioa
-  Adiskidetasuna
-  Solidaritatea
-  Gatazken konponbidea
-  Esfortzua / Gainditzea
-  Desberdintasunen errespetua
-  Erresponsabilitatea

"EMOZIOI BURUZKO HEZIKETA"

Gure portaeretan sentimendu eta emozioek eragin handia dute. Zerbait egiteko orduan edo erabakiak hartzeko orduan guk uste baino pisu handiagoa dute. Emozio batzuk egunerokotasunean portaera desegokiak izatera eramaten gaituzte; eta batzuetan sustantzia psikoaktiboak kontsumitzera edo adiktiboak izan daitezkeen ekintzak burutzerak.

Horregatik, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleei, **Amankomunazgoko teknikariak** burutzen duten, emozioak kudeatzeko tailer bat eskaintzen zaie.

Helburu nagusiak honako hauek dira: norberaren eta besteengan oinarritzko emozioak ezagutzea, emozio positiboak indartzea eta egoera zailtan erlaxatzen ikastea.

"HEZIKETA AFECTIVO-SEXUALA LEHENENGO HEZKUNTZAN"

Jarduera honekin topiko, jarrera eta balore negatiboen transmisioa eragotzi nahi da. Ikasleek beraien sexualitatea ezagutu eta ulertzea nahi dugu. Durangoko Amankomunazgoko Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. Zikloko ikasleei zuzendurik dago.

Kurtsoaren arabera ikasleekin landuko diren gaiak ondorengoak dira:

Algunos de los temas que se trabajan son los siguientes:

-  Nosotros mismos/as
-  Los demás y nosotros
-  Amistad
-  Autoestima
-  Cooperación
-  Compañerismo
-  Solidaridad
-  Resolución de conflictos
-  Esfuerzo / Superación
-  Respeto a las diferencias
-  Responsabilidad

"EDUCAR LAS EMOCIONES"

Las emociones y sentimientos tienen gran influencia en nuestros comportamientos. A la hora de hacer algo o de tomar una decisión tienen mayor peso del que pensamos. Algunas emociones nos llevan a tener conductas inadecuadas en el día a día; y a veces, al consumo de sustancias psicoactivas o a realizar actividades que pueden ser adictivas.

Por ello, se oferta un taller sobre gestión emocional dirigido al alumnado de 5º de Educación Primaria y realizado por el **personal técnico de la Mancomunidad**.

Los objetivos principales son saber identificar en uno/a mismo/a y en las demás personas las emociones básicas, potenciar las emociones positivas y aprender a relajarnos en situaciones difíciles.

"EDUCACIÓN AFECTIVO-SEXUAL EN LA EDUCACIÓN PRIMARIA"

Esta actividad quiere evitar la transmisión de tópicos, actitudes y valores negativos. Lo que se pretende es que el alumnado conozca y entienda su sexualidad. Va dirigida al alumnado de 2º y 3er Ciclo de Educación Primaria.

Los temas que se tratarán con el alumnado, según los cursos, son:

- Zentzuak
- Sexu-rolak
- Dibertsitate sexuala eta genero aniztasuna.
- Errespetuaren garrantzia
- Sexualitatearekin harremana duten kontzeptuak
- Sexu harreman (laztanak, musuak, masturbazioa,...)
- Nerabegaroko aldaketak
- Orientazio sexual desberdinak
- Emozioak
- Jarrera sexualak.

Jardueran **heziketa-eragile nagusiak irakasleak** izango dira baina **kanpoko laguntza teknikoarekin**. Ikasleei dudak argitzeko, hasieran edo amaieran, tekniko aditu batek saio bat emango du.

